

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKTak eta Konpetentzia Digitalak

**Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen
Irakaskuntzan**

Berezko Tituluko Proiektua

Euskara ikastaro erdi-presentziala

HEOn, B1 maila

Egilea

Mikel Osinalde Agirre

Zuzendariak

Mikel Iruskieta

Abel Camacho



ueu

udako
euskal unibertsitatea

2018

Laburpena

Hizkuntzen irakaskuntzan informazio eta komunikazio teknologiek (IKTek) egin dezaketen ekarpenaren inguruko hausnarketa eta esparru horretarako lagin baten azalpena aurkituko dituzu Hezlkt18 graduondoan ikasitakoak bateratzen dituen txosten honetan.

Arlo eta eremu zabalak izaki, testuingurua orokorretik Eibarko HEOn egin ohi dugun lanera arteko eta hemen proposatzen den tresnarako bidea deskribatu dela ikusiko du irakurleak. Hezkuntzako araudia, komunikazio gaitasunak eta digitalak, ohiko jarduna eta beste hainbat esparru xehatu dira.


Ohiko aurrez aurreko jarduna *online* egindakoarekin uztartzeko ahalegina da hemen aurkeztutakoa. Ikastetxearen helburuak eta ikasleenak bat egingo lukeen gune bat eratzea, alegia, ikasleek euskaraz jarduteko gaitasuna eskuratzea erraztuko duen testuinguru aproposa. Beraien kasa, autonomiaz baina irakaslearen babes, gidaritza eta laguntzarekin (haietariko bakoitzari egokituta) osatu beharreko ibilbidea da taxutu duguna.

Lanarentzako oinarri teorikoa ezartzeko e-learningaz, eskola erdi-presentzialaz eta eskura izandako metodoez jardun ostean, B1 mailako euskara ikastaro hau diseinatzeko baliatu dudan metodologiaren berri eman dut. Jarraian, UEUri esker eskura izan dudan Moodle plataforman egituratutako ikastaroaren nondik norakoen kontaketa zehatzagoa ere eskaintzen da.

Azkenik, ondorioen atalean halako lanen ekarpenaz, berrerabilgarritasunaz eta aurrerago egin daitezkeen hobekuntzez hitz-aspertuan aritu naiz.

(.../...)
*Ematen den oro hazten da,
berdetzen da, itzultzen da.*
(.../...)

Mikel Markezen "Indar bat dabil hor" bildumako
Gauza Xumeetan abestitik



Gaien aurkibideak

Laburpena	2
Gaien aurkibideak	3
Irudien aurkibidea	4
Sarrera	5
1. Hezkuntza IKTen aroan	5
2. HEOen esparrua hezkuntza sisteman	6
3. Gure ikastetxeko jarduna	8
4. Hizkuntza gaitasuna. HEEEBko B1 maila, 1. HE.	9
4.1. Ebaluaziorako errubrika (idatzia, ahozkoa)	11
4.2. Konpetentzia digitala	13
Proiektuaren helburuak	17
Proiektuaren garapena	19
5. MARKO TEORIKOA	19
5.1. E-learningari buruzko hausnarketa laburra	19
5.2. Eskola erdi-presentziala (Blended-learning)	21
6. ANTZEKO LANAK	23
6.1. Arian. Autoikaskuntza metodoa	23
6.2. Primeran. Ahalegin publiko-pribatua	23
6.3. Learnlight. Arlo pribatuko saiakera	24
7. METODOLOGIA eta TRESNAK	26
7.1. Prozedura	26
7.2. Baliabideak	26
8. IKASTUNITATEA (EMAITZAK)	30
8.1. Ikastaroaren nondik norakoak	30
▪ Orokorra	31
▪ Berrikuste jarduerak	32
▪ Eduki berriak	34
▪ Irakurmena lantzen	35
▪ Entzumena lantzen	37
▪ Adierazpen gaitasuna lantzen	39
Ondorioak	40
Bibliografia	45

Irudien aurkibidea

1. **irudia.** EEBren Hizkuntza gaitasun mailak
2. **irudia.** Hizkuntza eskakizunen baliokidetzak
3. **irudia.** Ebaluaziorako datu-orria
4. **irudia.** Foroan iruzkintzen
5. **irudia.** *Meme* baten adibidea
6. **irudia.** Ikastaroaren irudi orokorra
7. **irudia.** Sailen kanpoko itxura
8. **irudia.** Glosategia, taldeko hiztegia
9. **irudia.** Talde lanean ikertzeko eta erabakitzekeo tresna
10. **irudia.** Ebaluazio tailerraren aukerak
11. **irudia.** Gramatika ariketa
12. **irudia.** Irakurmena neurtzeko ariketa
13. **irudia.** Komiki-banda foroan
14. **irudia.** Entzumen ariketa (3 aukera 1 zuzena)
15. **irudia.** Musika eta hitzak (hutsuneak bete)
16. **irudia.** Adierazmena lantzen (ahoz, idatziz)
17. **irudia.** Bidalketa botoia
1. **taula.** Lantzen diren *gaitasun digitalak* neurtzeko errubrika

Sarrera

1. Hezkuntza IKTen aroan

IKTek guztion eguneroko bizimoduan duten eragina erabatekoa dela esango nuke. Bai behinik behin, orain hamarkada bat edo bi genuen bizimoduarekin alderatuz gero. Egunero egiten ditugun ekintza gehienetan baliatzen ditugu. Sakelakorik gabe bititzeak barne herstura eta ezinegona eragiten digu. Lagunekin, familiako kideekin edo lankideekin hitz egiteko, posta elektronikoaren bidez komunikatzeko nahiz hainbeste hedatu diren sare-sozialen bidez harremanetan eta informazio bilketan aritzeko ezinbesteko bilakatu dira aipatutako teknologiak.

Askotarikoak dira teknologion erabilerak; diotenez, munduan milaka milioi sakelako telefono izan bide dira. Horien bidez sarera konektatu eta hango baliabideak noiznahi erabiltzen dituzten erabiltzaileen kopurua hein berean areagotu da. Munduko zeinahi txokotatik eta nornahik jaso dezake informazio eta datu iturri itxuraz agorrezina eta merkataritzara zein entretenimendura nahiz jakintzara bideratu.

Liburuak, musika, filmak edota berri-paperak Internet sarearen bidez eskuratzen ditugu gero eta gehiago. Halakoa izan da aldaketa ezen ohiko bideak zerabiltzaten bitartekariak eta sortzaileak kolokan sumatu baitute haien bizibidea.

Erosketa zein ordainketa teknologia berrion bidez egiten dutenen kopurua zein eragiketen multzoa ere asko handitu da: Ekitaldietarako sarrerak, hainbat eratako salerosketak, ordainketak...

Hezkuntzan ere igarri da teknologia honen eragina. Ikasleek ikasi behar duten edukiaren eta horretarako hartu beharreko denboraren kontrol eta erantzukizun handiagoa bereganatu dute.

Irakaslea informazio iturri izatetik informazioa bideratu eta prozesuan bidaide izatera aldatu da hainbat esparrutan (ohiko prozedurek hor jarraitzen badute ere

egoera berri horretara bidean gaudela esango nuke). Askotan betiko irakaskuntza ohiturak errepikatzen ditugu baina bestelako baliabide teknologikoak erabiliz.

Ikaslearen ebaluazioari dagokionez, errazagoa da ikasleen lana egiten ari diren bitartean aztertzea eta argibideak eskaintzea lanean ari den bitartean. Izan ere, data oro sarean baitago eskuragarri. Noiznahi kontsulta daiteke ikasleak osatu duen ibilbidea, zenbat denbora eskaini dion ataza jakin bati eta baita lortutako emaitza ere. Esan nahi baita, zinezko ebaluazio jarraitua egiteko aukera eskaintzen du aro berriak, prozesuan zeharreko gidaritza egitekoa. Maiz, ordea, lana osatu ostean ematen diegu egindakoaren inguruko ebaluazioa betiko ohiturei eutsiz. Bitarteko berriek ez gaituzte halabeharrez metodologia berriak geureganatzera eraman.

Testuinguru horretan kokatzen da honako ahalegina. Zehazki, Eibarko Hizkuntza Eskolan Euskara B1 mailan irakasten dihardudanez, balizko etorkizunean izan ditzakedan ikasleei bizi dugun aroari dagokion harrera egin ahal izate aldera osatutako saiakera bat da.

2. HEOen esparrua hezkuntza sisteman

Hizkuntza eskolen xedea ohiko hezkuntza sistematik kanpo datorren ikaslea hizkuntza jakinetan gaitzea da. Hiru maila bereizten dira bertan, hots, oinarrizkoa, tartekoa eta aurreratua. Hurrenez hurren Europako esparru bateratuko¹ A, B eta C mailai dagokienak, hain zuzen ere. Tarteko mailak ere aurreikusten dira: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2.

A1	A2	B1	B2	C1	C2
Hasiera	Oinarrizkoa	Tartekoa	Aurreratua	Gaitasuna	Menderatzea
Oinarrizkoa		Tartekoa		Gaitua	

1. irudia. EEBren Hizkuntza gaitasun mailak

¹Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Marko Bateratua. Europako Kontseilua (ikus <https://labur.eus/6cejr>).

Ikasketak hasterako hamasei urte beteak behar ditu bertaratu nahi duenak, alabaina, bigarren hezkuntzakoaz bestelako hizkuntzarik landu nahi lukeen hamalau urtetik aurrerako ikasleak ere baluke izen ematerik.

Hezkuntza administrazioak arautzen ditu eskola ofizialetan zaindu beharreko irakasle-ikasle ratioak, instalazioak eta irakasle zein ikasle plazak. Horrek irizpideok eskola guztietan jarraitzea ahalbidetzen du, batasunak berez dituen alde onuragarriekin nahiz bestelakoekin.

Europar Batasunean ofizialak diren zein Espainian koofizialak diren hizkuntzen irakaspena lehenetsi behar dute hizkuntza-eskolek, are espainiera ere atzerritarrei irakasteko. Kultur, gizarte edo ekonomia arazoak direla eta bestelako hizkuntzak eskaintzeko aukera ere balukete.

Hizkuntza eskolek bertaratutako ikasleez gain, urruneko irakaskuntza barne hartzeko era izango dute eta baita hizkuntza gaitasunak berritu edo hobetu nahi luketen irakasleei nahiz bestelako profesionaleri ikastaroak eskaintzekoa ere.

Hizkuntza maila bakoitzerako ezarri diren eskakizunak gaindituz gero, mailari dagokion ziurtagiria jasotzeko eskubidea du ikasle orok. Hizkuntza bakoitzaren curriculumak ezarritako zehaztapenetan jasoko dira ziurtagiriek zertarako balia daitezkeen.

Ikasleak ikastetxeko irakasleek ebaluatuko dituzte. Hezkuntza administrazioek arautzen dituzte azken proba eta ariketak (oinarrizko, tarteko zein maila aurreratukoak). Maila horiek dira, bere azpimailekin, Europako Erreferentzia Markoan jasotakoak, dagoeneko aurreko irudian ikus daitezkeen horiek, preseski.

Gobernuak zehaztuko du sistema publikoko tituluen eta hizkuntza irakaskuntzako tituluen arteko baliokidetasuna. Hala ere, hezkuntza administrazioek homologazio probak egin ditzakete Bigarren Hezkuntzako edo Lanbide Heziketako ikasleek hizkuntza jakin batean duten gaitasuna neurtzeko².

Metodologiari dagokionez, hartzen den ikuspuntua Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europako Esparru Komunikatiboa ezartzen duena da. Gaitasun komunikatiboaren garapenera bideratutako eta ikaslearen kontzentratutako ikuspuntu bat da; horrela, erabiltzen den hizkuntzaren ikasketak hartzaileen errealitatea kontuan hartzeko, ikaslea prozesu didaktiko guztiaren ardatz gisa onartzeko eta ikasleek "eginez ikasi" printzipioari jarraiki, beren ikasketaren ardura hartzea lortzeko³.

²Maiatzaren 3ko [3/2006](#) hezkuntzako lege organikoa.
346/2006 [dekretua](#).

3. Gure ikastetxeko jarduna

Ikastetxe guztientzat ezarritako programazio bakarrean oinarritzen gara maila bakoitzeko ikastaroak antolatzeko. Erredakzio talde bat dago azterketarako ereduak irizpide jakinen arabera prestatzen eta sortzen dituenak. Azken xedea lau gaitasunetan maila egokia lortzea bada ere, ebaluatzeko mugarrira azterketa horrek ebazten du, eta beraz, handik edo hemendik horretara bideratzen ditugu eskolak. Hamalau dira lantzeko proposatzen zaizkigun gaiak: “etxebizitza, hiria eta ingurua, eguneroko jarduerak, aisialdia, bidaiak, giza-harremanak eta gizarte-harremanak, osasuna eta gorputzaren zaintzak, hezkuntza, erosketak eta jardura komertzialak, elikadura (Janaria), zerbitzuak, hizkuntza eta komunikazioa, eguraldia, aroa eta ingurumena, zientzia eta teknologia, nor bere burua aurkeztu eta ezagutu”⁴.

Lanotarako Elkar argitaletxeak prestatutako testuliburuak erabiltzen ditugu gidaritzat. *Arian*⁵ egitasmoan ikasleari agertzen zaizkion atazak gainditzeko, berriz, bertako baliabideak (ariketa liburua, gramatika informazioa) zein geuk sarean edo bestelako iturrietatik bildutako bitartekoak baliatzen ditugu, aipatuen osagarri.

Ulermena (irakurriarena zein entzunarena) eta adierazmena (idatzizkoa nahiz ahozkoa) hobetzea da egiten dugun lanaren helburua, esan bezala. Darabiltzagun liburuek badute arlo guztiok biltzeko nahikoa bitarteko eta horiez gain, *Ikasbil*-eko unitate didaktiko digitalizatuak ohikoak izaten ditugu gelako jardunean⁶.

Eguneroko albisteen jarraipen zuzenik egiten ez badiogu ere, musika edo ikus-entzunekeo munduko joerak eskolara ekartzen ditugu: disko argitalpen berriak entzun eta hitz zein esaldi berriak berenganatzeko ariketa sortak prestatuz, film laburrekin (elkarrizketadunak zein mutuak).

Ikasleen beharrak ager daitezen haiek idazlanetan egindako akatsak eraldatu eta talde osoari eskaintzen dizkiogu elkarrekin egitura, termino edo esamolde egokienak topa ditzaten, are irakasleak lagunduta ere.

Aurrez-aurreko eskolekin dugun jardunbidea, hots, soilik aurrez-aurreko eskola moduetakoa, ohitura erdi-presentzialetara moldatzerik badelakoan nago. Horren adierazgarri izan nahi du, hain zuzen ere, hemen aurkezten dudana saiakerak. Aintzat hartu da, orobat, une oroko gidaritza eskertzen duten ikasleek nolabaiteko autonomia harturik ikas-irakaste prozesuan hobekuntzak sumatzea; metodo berriekiko beldurrak uxa ez ditzan.

4HEOetako programazioa (Euskara B1). [PDFa](#)

5Berariazko atal bat eskaini diogu metodo honi. Lan honetako 6.1 azpiatala.

6HABEK ikas materiala eskuragai jartzeko darabilen biltegi egituratua (ikus: <http://www.ikasbil.net/>)

Bistan da, lanean ari den eta aldi berean ikastaroa jarraituz hizkuntza gaitasun berriak bereganatu nahi duen ikastalde oparoak bertaratu gabe, bere kasa eta denbora kudeatzeko autonomia nahikoz egin ahal izateko, eskaintza erdi-presentziala aukera ona izan daiteke. Internet sarea eta bitarteko digitalak ikastetxean aurki daitekeen ohiko metodologiarekin bateratzen edo elkar osatzen saiatzen den ikas-irakaste prozesu honen alde eginez, aurrez aurreko eskolak *online* egindako ikasketekin batera eskainiko ditugu. Bakarka ikastearen alde ezkorrak saihestuz, irakaslearen gidaritza eta zalantza argitzaile errola erantsita, halako ikastaro baten diseinu egokia proposatzen saiatuko gara lan honetan.


4. Hizkuntza gaitasuna. HEEEBko B1 maila, 1. HE.

Europako Kontseiluak antolatutako aditu lantaldeak ezarritako hizkuntzen gaitasun erreferentziari jarraiki osatzen dira B1 mailako ikastaroak eta hala trebatzen dira ikasleak horri dagokion hizkuntza gaitasun mailan. Labur esanda, hauek dira hizkuntza komunikazio gaitasunak biltzen dituen alderdiak:

- *Ahozkoaren ulermena gaitasuna.* Gai orokorren inguruko mintzaldiak ulertzeko gai izango dira. Zailegiak ez diren informazio teknikoak ere bereganatuko dute. Pertsona arteko harremanetan eta komunikabideetan ohikoak diren diskurtsoak hartzen dira aintzat.
- *Idatziaren ulermena.* Goiko esparruetako testuak hartzen ditu kontuan, idatzizkoak honakoan. Testu luzeetako informazio zehatza, albiste orokorrak, arauak, eskutitzak... Informazio hori ulertzeak berau hautatzeko eta berrerabiltzeko gaitasuna emango luke aditzera.
- *Mintzamena.* Hainbat egoeratan eta askotariko gaietan solasaldian edo bakarrik parte hartzeko gaitasuna erakutsi behar da: negoziatzen, informazioa trukatzeko, aurkezpenak egiten eta azalpenak ematen. Diskurtso koherenteak eta gaiarekin bat egiten dutenak osatuko ditu.
- *Idazmena.* Hizkuntza baliabideetan aberastasun zantzuak antzemango zaizkio testuetan. Antolaketa eta kohesio maila errazak izanagatik beraien xedeekiko eraginkorrak izan bide dira: aurkezpenak, egoeren deskribapena, erreklamazio edo esker gutunak, narrazio bildu eta lotuak, zaletasunen adierazpena... Zuzentasunean bezain egoki arituko dira ideiak bitarteko landuekin antolatzen.

Aipatu beharrekoa da, orobat, orokortua den komunikazio gaitasun maila honek

baduela ordain administratiboa ere. Esan nahi baita, euskal administrazioan zenbait jardueratarako aitortzen zein eskatzen den lehenengo hizkuntza-eskakizuna (1. HE). Ezin utzi, motzean bederen, esateke hainbat erakunderen gaitasun agiriak bateratzeko egin den ahalegina. Egin ere, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuan xedatuari jarraitze aldera. Azken baliokidetza dekretuan (2017koa⁷) zehaztutakoa jasotzen du azpiko irudiak.



2. irudia. Hizkuntza eskakizunen baliokidetza

Orain arte aipatutako trebetasunez gain, interesgarria iruditu zait ziurtagiri honen jabeari onartzen zaizkion ustezko gabezien zerrenda laburra jasotzea:

- Eredu itxura duten esamoldeak erabili ahal izango ditu.
- Akats gramatikalak egin ditzake.
- Segurtasun eza erakutsi dezake eta erabiltzailea harreragile egokiagoarengana zuzentzeko gai izango da.
- Ulermenez baino makalago aritu daiteke hizkuntza ekoizpenetan.
- Erritmoan, azentuan eta doinuan bere ama-hizkuntzaren eragina nabari dakiok.
- Ohiko esamolde eta hizkuntza baliabideak egoki erabili arren, aberastasun maila apalagoa onartuko zaio.
- Autozuzenketa eta errepikapen eskaerak onartuko zaizkio, are gaiz

aldatzeko zailtasunak onetsi ere.

- Arrazoibide eta eztabaida luzeetan murgiltzeko arazoak izan ditzake.

4.1. Ebaluaziorako errubrika (idatzia, ahozkoa)

Ikasleak ebaluatzerakoan ondoko jarraibideak proposatzen zaizkio HEOKo irakasle bakoitzari. Egindako lanean aintzat hartu ditugu aipatutako zehaztapenak eta, beraz, komenigarria dateke hemen jasotzea.

Idatzizko ekoizpenen bi irakurraldi egin ohi dira. Aurrenekoan, aztertzailea idazlearen lekuan jarriko da eta ondoko galderei erantzuten saiatuko:

- Eskatutako formatua eta luzera errespetatzen ditu?
- Ulergarria da?
- Irakurterraza da?
- Eskatutako puntu guztiak sartu ditu?
- Testuko zein zati berrirakurri behar dira? Zergatik? (Hiztegiagatik? Kohesio ezagatik? Koherentzia ezagatik? Sintaxi- edo morfologia-akatsengatik?)

Bigarren aldiz irakurtzerakoan zuzentasunari behatuko zaio. Asmo horrekin prestatu da galdetegi hau:

- Egindako akatsek ulergarritasuna zailtzen dute, edo garrantzirik gabeak dira?
- Egindako akatsek testua irakurtzea eta ulertzea zailtzen dute?
- Azterketariak frogatzen al du komunikazioaren oinarriko egiturak eta moduak menperatzen dituela?
- Egitura anitzeko baliabideak erabiltzen ditu, ala egitura paraleloak eta errepikakorrak dira?
- Lexiko anitza eta zehatza erabiltzen du, ala errepikakorra, orokorra eta zehaztasun gutxikoa?

Hemen aurkeztutako ikastaroan irizpide horien arabeko errubrika bat sortu dugu, zeina ikasleen eskura izango den une oro haien lanak zein ikaskideenak ebaluatzeko eta hobekuntzaren bideak ezagun izan ditzaten. Asmo horrekin astero irakasleak astero antolatuko duen Moodle plataformako baliabide bat erabiliko da, hots,

tailerra. Bertan txertatu da *online* galdetegi gisa azpikoko irudian dugun txantiloia⁸.

Ebaluaziorako formularioa

1 irizpidea

Egokitasuna neurtuko duzu. Eskatutako lana egin al du? Gaiari, hizkuntza erregistroari, testuaren egiturari, formatuari... begiratu beharko diozu.

- Edukia desegokia
- Edukia neurri handi batean ez zaio eskatutakoari egokitzen.
- Edukia neurri batean bakarrik egokitzen zaio eskatutakoari.
- Edukia eskatutakoari egokitzen zaio, baina arazoren bat dago.
- Edukia neurri handi batean egokitzen zaio eskatutakoari.
- Edukia eskatutakoari guztiz egokitzen zaio (erregistroa, ideiak, formatua,...)

2 irizpidea

Testuaren koherentzia eta kohesioa. Ondo lotuta al dago ideien zerrenda? Paragrafoak egoki bereizita al daude? Ahapaldi bakoitzaren barreneko loturek irakurketa errazten al dute?

- Testua ez dago kohesionatuta eta egitura guztiz desegokia da.
- Kohesio-arazo handiak daude eta egitura, neurri handi batean desegokia da.
- Testua neurri batean bakarrik dago lotuta eta egitura ez da oso egokia.
- Testua nahiko ondo lotuta dago eta egitura nahiko egokia da.
- Testua ondo lotuta dago eta egitura egokia da.
- Testua oso ondo lotuta dago eta egitura oso egokia da.

3 irizpidea

Aberastasuna. Hizkuntza baliabide ugari erabiltzen du, nola alderdi gramatikoari bagagozkio, hala pragmatikoari zein hiztegi mailakoari.

- Hiztegia eta esapideak desegokiak dira.
- Hiztegia eta esapideak desegokiak dira askotan.
- Hiztegia eta esapideak neurri batean bakarrik dira egokiak.
- Hiztegia eta esapideak orokorrean egokiak dira baina, batzuetan, erabileraren bat desegokia da.
- Hiztegia eta esapideak orokorrean egokiak dira.
- Hiztegia eta esapideak oso egokiak dira.

4 irizpidea

Zuzentasuna. Hizkuntzaren arlo orotako arauak so zenbateraino aritu da behar zuen eran?

- Akats asko, ulermena eragozten dutenak.
- Akats asko daude, edo/eta neurri handi batean ulermenari eragiten diotenak.
- Akats dezente, edo/eta ulermenari nolabait traba egiten diotenak.
- Akats batzuk daude baina, orokorrean, ez diote ulermenari trabarik egiten.
- Akats gutxi, ulermenari trabarik egiten ez diotenak.
- Oso akats gutxi daude, garrantzirik gabekoak.

3. irudia. Ebaluaziorako datu-orria

Adibide gisa ikasle baten egiazko idazlan laburra dakargu ikusgai⁹. Azpian galdetegiaren erabileraren lagin bat ere proposatzen da. Zuzendu beharreko zenbait elementu azpimarratuta ikus daitezke, honatx:

Iepa Irati,

Zer moduz zabilta! Espero dut ondo zaudela. Gogoratu nahi nizuke datorren hilabetean Mikelen urtebetetzea ospatuko

⁸Ikusgarritasunaren kaltetan Moodle-ek ikasleei igortzen dien dokumentuaren benetako argazkia jarri nahi izan dugu. Argiago ikusteko klikatu hemen: <https://labur.eus/njXzD>
⁹Haren izena eta datuak erabat isilpean daudenez, hedapenak ez du inolako arriskurik. Nolanahi ere, eskuizkribuak eskain zitzakeen zantzuak ere ezabatu ditugu.

dugu__. Gogora ezazu joan den urtekoa kristorenak egin zituzten__, horregatik gustatuko litzaidake plana lasaiagoa egitea.

Adibidez: Joan genezake Granadara eta han bertan festa sorpresa bat antolatu, hitzegin dezakegu gure koadrilarekin ea zer iruditzen zaien denei.

Ahal baduzu astean zehar etor ezazu nire etxera eta internetez bidez informazioa azaldu dezakegu hotelari buruz, edo kotxeari buruz Granada__ joateko.

Zer deritzozu?

Ondo datorkizu astean zehar etortzea?

Ondo izan,

Nuria

Galdetegiari erantzun osteko datuek balizko bost puntutik hiru edo lau aitortuko liokete idazlanaren egileari, ohar hauekin:

- Edukia neurri handi batean egokitzen zaio eskatutakoari.
- Testua nahiko ondo lotuta dago eta egitura nahiko egokia da.
- Hiztegia eta esapideak orokorrean egokiak dira baina, batzuetan, erabileraren bat desegokia da.
- Akats batzuk daude baina, orokorrean, ez diote ulermenari trabarik egiten. Egokitasuna, koherentzia eta kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna.

Antzeko prozedurari jarraituko diogu ahozko ekoizpenetan. Nolanahi ere, hauek aurrez aurreko eskola orduetan landuko eta ebaluatuko ditugu, aurreragoko saiakera osoago baten zain.

4.2. Konpetentzia digitala¹⁰

Euskara ikastaroa izanik, parte hartzen dutenek hizkuntza horretan komunikatzeko gaitasunak hobetzea eta egiteko horietan trebatzea da ezarritako helburu behinena. Haatik, ikastaroaren izaera erdi-presentziala dela eta, alderdi

¹⁰ Europar kontseiluaren azken argitalpenean jasotako txostenean oinarritua. Ikus [sarean](#)

teknologikoa ere lantzeko modua izango da. Esan nahi baita, erabilitako metodologiaren eta baliabideen kariaz zenbait konpetentzia digital ere berenganatuko dituzte erabiltzaileek. Bost arlotan banatuta zerrendatu ditugun gaitasunak, hain zuzen ere:

- **Informazioa**
 - Fitxategiak egoki gordetzen eta berreskuratzen ikasiko du
 - Informazioa ebaluatzen ikasiko du.
- **Komunikazioa**
 - Ikaskideen arteko mezuak Irakaskuntza Kudeatzeko Sistemak (komunzki, ingelesezko Learning Management System-en LMS laburdura erabili ohi da. Hemen ere bai aurrerantzean) eskainitako foroen bidez igortzen eta jasotzen trebatuko da.
 - Irakasleari fitxategiak bidaltzen, hots edukia partekatzen moldatuko da.
 - Netiketa¹¹ zainduko du foroko hartu-emanetan.
- **Edukiak sortzea**
 - Eduki digitalak sortzeko edo egokitzeko gai da (testu-prozesatzaileekin batik bat).
- **Segurtasuna**
 - Ikaskideen informazioa eta berea egoki baliatzen zein babesten ikasiko du.
- **Arazoak bideratzea**
 - LMS plataforma erabiltzerakoan agertzen zaizkion oztopoak gainditzen asmatuko du edota laguntza eskatzen ikasiko du (inoiz tresnok erabili ez dituen ikasleak ditut buruan).

Gaitasunok neurtzeko eta ebaluatzeko errubrika bat ere prestatu dugu, batik bat aurrez aurreko eskolatan baliatuko dena. Sarreran erakutsitako ikaslearen soslai aintzat hartuta egokitzen jo dugu aurreneko asteetan behinik behin, arlo digitalean laguntza handia eta jarraitua eskaintzea. Horretan hain trebatua ez dagoen ikaslerik gal ez dezagun ikastaroa hasi berritan. Gerora, errubrika honen bidez ebaluazioa behar adina aldiz errepikatzea aurreikusten da, ikasleek beraien hobekuntzaren berri izan dezaten nahiz, hala behar izatera, berariazko laguntza jaso dezaten.

¹¹Eremu birtualean jarduteko gizalegezko arauetara deitzen zaie honela. Hainbat eta askotarikoak daude baina finean elkarrekintza horietan jarraitu beharreko oinarrizko portaerez dihardute.

Irizpideak	Mailak		
	Oinarrizkoa	Tartekoa	Aurreratua
Informazioa	Ez ditu bidalitako dokumentu guztiak gordetzen	Dokumentuak gordetzen ditu baina desegoki antolatzen ditu	Bidalitako fitxategiak gordetzeaz gain badaki berriz behar dituenean haiek eskuratzen
	Ez daki emandako informazio multzoa ongi bereizten	Inoiz informazio desegokia baliatzen du	Eskuratutako informazio oro ongi hautatzen du
Komunikazioa	Gutxitan bidaltzen ditu mezuak forora. Erantzun, aldiz, behin ere ez.	LMSaren forora mezuak igortzen ditu baina elkarrekintzan sartu gabe	Forora mezuak bidaltzeaz gain, ikaskideenei egoki erantzuten die
	Ez du beti asmatzen txostenak plataformara egoki bidaltzen	Gehienetan ondo egiten ditu bidalketak	Eskatutako edukiak egoki bidaltzen ditu plataformara irakasleak jaso ditzan
	Erregistro egokia aukeratzeko zailtasunak ditu foroko hartu-emanetan	Inoiz erregistro egokia aukeratzeko arazoak izaten ditu foroko hartu-emanetan	Netiketa zaintzen du foroko hartu-emanetan
Edukiak sortzea	Maiz zailtasunak ditu dokumentuak testu-prozesatzailearekin moldatzeko	Eduki digitalak sortzeko gai da ia beti (testu-prozesatzaileekin batik bat)	Eduki digitalak sortzeko edo egokitzeko gai da (testu-prozesatzaileekin batik bat)
Segurtasuna	Askotan berari eta ikaskideei buruzko informazioa zabarki zabaltzen du	Gehienetan ikaskideen eta bere informazioa egoki baliatzen du	Ikaskideen informazioa eta berea egoki baliatzen zein babesten du
Arazoak bideratzea	LMS plataformarekin dituen arazoak lanerako oztopo bihurtzen zaizkio askotan	Gehienetan badaki LMS plataformarekin dituen oztopoak gainditzen edo laguntza eskatzen	LMS plataforma erabiltzerakoan agertzen zaizkion oztopoak gainditzen asmatzen du edota laguntza eskatzen badaki

1. taula. Lantzen diren *gaitasun digitalak* neurtzeko errubrika

Honaino sarrerakoan adierazi beharrekoak. Honezkerok azalduak dira lan honen testuinguruaren zertzelada batzuk. Hurrengo kapituluetan are gehiago zehaztuko dut langaiaren eremua eta egindakoen berri ematen jarraituko.

Datorren kapituluaren egitasmoaren helburuei buruz aritu naiz eta horiek abiapuntutzat hartuz tresna garatzeko egindako ibilbidea azaltzeari ekin diot ondorengoan. Azken kapitulu honek lau atal ditu, zeintzuetan marko teorikoa ezarri, antzeko lanen berri eman, jarraitutako metodologiaz jardun eta sortutako ikastunitatea deskribatu dudan. Bukatzeko, prozesua amaitu ostean ateratako ondorioak jaso ditut. Bertan, ekoizitako ikastaroarekin asetako helburuez, aurkitutako mugez eta etorkizunerako proposatutako egingarriez dihardut.

Proiektuaren helburuak

Hizkuntza Eskolako irakasle naizela baliatuz edo horregatik, hain zuzen ere, aurrez aurreko eskolak metodologia erdi-presentzialera moldatzeko ahalegina egin dut. Horretara, ikastetxeak eskaintza zabaltzeko modua izango du eta, bide batez, ohikoez bestelako bideak erabilita lor genitzakeenak neurtzeko aukera ere izango dugu, aurrerago.

Ikastaro bat antolatu dut, bakarra. Euskara izango da ikas/irakasgaitzat izango duguna eta dagoeneko azaldu dudan marko bateratuko B1 mailan jardungo dugu (horretan baitihardut egunerokoan).

Hezkuntza sailetik maiz aipatu izan zaigu HEOn dihardugun irakasleoi ikastaro erdi-presentzialen eskaintza hedatzearen aldekoak direla. Hurrengo ikasturteren batean halako eskaintzarik egingo badugu, xede horretarako prestatua izan bide den egitura eta metodologia argi izatea komeni zaigu.

Hori da, beraz, helburu behinena, hots, dauzkagun ikasleak ezagututa haiek hizkuntza berenganatzeko eraginkorrena den metodoa garatzea eta ikastaro batean inplementatzea.

Hizkuntza komunikazio gaitasuna lantzeko lau alderdi nagusiak jorrotuta trebezia horietan zailduko ditugu ikasleak. Asmo horri jarraiki antolatu ditugu asteko lanak irakurriaren eta entzunaren ulermena lantzeko atal banarekin; eta , jakina, baita idatzizko zein ahozko ekoizpena fintzeko beste atal parearekin. Beti ere, ikasleek gaitasunotan maila hobea lor dezaten.

Gaurdaino Elkar argitaletxeko *Arian* metodoaren testuliburu eta ariketa liburuak izan ditugu lanerako gidari. Liburuon arabera egiten genuen denboralizazioa eta haiek ematen ziguten egin beharrekoa egiten ari ginenaren ziurtasuna. Ez diogu aukera horri muzin egingo; izan ere, eduki gramatikalei dagokion atala bestako informazioarekin osatuko baitugu. Haatik, liburuak tresna osagarritzat erabiliko dituzte ikasleek eta ez dugu ezinbestean eskuratzea aholkatuko. Erabaki horrek ikasleengan edo geuregan eragiten dezakeen izuari eta zalantzari aurre egitea ere bigarren mailako helburuen

artean beharko dugu izan.

Eskuarki, *Moodle* plataformako baliabideak izango dira ikasleen eskura jarriko ditugunak. Horien bidez, talde-lana, elkarrekin ikasteko grina eta, batik bat, autonomia sustatuko ditugu ikasleen ikaste prozesuan. Zentzu horretan, koebaluazio tailerra erantsi diogu ikastaroari, zeinak goian aipatutako helburuak erdietsi nahi lituzkeen.

Ikasleek erdira jaitsiko dute eskolaratze kopurua baina egiteke duten lanak bere horretan dirau. Noiznahi eta nahi adina jarduteko edo ekiteko baliagarria izango zaien tresna sortu dugu.

Proiektuaren garapena

5. MARKO TEORIKOA

5.1. E-learningari buruzko hausnarketa laburra

IKTek eguneroko bizimoduan eta azturetan eragin duten erabateko aldaketaren kariaz, zeina urte gutxiren buruan eman den, gizarteak egokitze ahalegin betean dihardu. Aipatu gizartearen osagai ezinbestekoa izaki, irakaskuntza ere mugimendu horren barrenean ari da higitzen. Hurrengo lerro laburretan bilakaera honen ikuspegirik onetsienak laburtuko ditut, orobat, hezkuntza sistemako kide garenok aurre egin beharreko zailtasunei eta egoera berri honek dakarzkigun aukerei buruzko iritzia azalduz.

Digitalizazio prozesuak dakarren ondorio nagusietakotzat dut nahikoa motibazio duen normahirentzat ezagutza bereganatzea gero eta erosoagoa edo eskuragarriagoa dela. *E-learning* deituak edo *online* ikasteko prozesuek (zenbait egilek bereziak izan direnak) ikasleentzat malguagoak diren testuinguruak sortzea ahalbidetzen du eta hauek ikaste prozesuen ganean erantzukizun eta kontrol handiagoaren jabe dira. Baliabideak eskuragarriago izateak nolabaiteko autonomia ematen dio ikasleari baina, aldi berean, hezkuntza jardunean erantzukizun handiagoa eskatzen dio (Cabero eta Castaño, 2005).

Irakasleak informazio iturri bakar izateari uzten dio eta ezagutza lortzeko bidean gidari izatera aldatzen da bere egitekoaren funtsa. Esparru honetan ezarritako teknologiek eskaintzen dituzten aukeretariko bat da hau, hain zuzen ere. Baliabideok urruneko irakaskuntza eraldatu dute baina zentzu gutxi luke berrikuntzak, baldin eta irakasteko eta ikasteko metodo berri bati atxikita ez baletor (Rosenberg, 2001). Irakaskuntza eredu berriak ikasketa kolaboratzailean oinarritzen dira eta dirudenez, aurrerantzean ere zentzu horretan sakondu bide da.

Izandako bilakaeraren adibide nabari bat adierazteko goragoko ahapaldi batean aipatu dudan zenbait egileren arteko eztabaida baliatuz azal nezake. Esan nahi baita, *E-learning*a eta *online-learning* terminoak definitzerakoan egindako bereizketak aintzat hartuta. Batak eredu tradizionalari atxikiago jarraituko luke eta edukia banatzeko modua baino ez litzateke aldatuko bertan. Bestean, aldiz, ikaslearen eta irakaslearen arteko komunikazioa sustatzen ahalegintzen dira. Era horretara, motibazioan oinarritutako ikaskuntza esperientzia erdieste aldera eta, aldi berean, ikas-arloari dagokionean egokia izan dadin lortzeko. Balizko bereizketa hau baliatu nahi dut, kontzeptuei buruz hausnartzeko, terminoak zehazteko eztabaidan sartu gabe.

Zentzu horretan, ikaslearen autonomia giltzarria den balio bilakatzen da ikaskuntza prozesuan. Ibilbide horren diseinuan eragile izateko aukera du eta, gainera, jarri zaizkion atazak gainditzeak nolabaiteko ahalegina eskatzen diola sumatu beharko du. Bistan denez, ikaskideen eta irakasleen arteko elkarrekintza ager daitezkeen oztopoak gainditzeko lagungarria izango da. Proposatutako atazak egiazko egoeren oso hurbilekoak izanik sormena ere trebatuko zein garatuko da eta, halaber, aspaldiko arazoei konponbidea bilatzeko ikuspegi berriak ager daitezen ahalbidetuko da.

Informazio eta komunikazio teknologien bidez ikas-irakaskuntza metodoa definitzeko beste kontzeptu interesgarri bat aurki genezake Guàrdiaren (2012) lanean. Bertan, Guàrdia *ikasketa banatuari* buruz aritzen da, zeina ikasleari begirako heziketa elementuen eskaintza eta banaketa jakin batean oinarritzen den. Artikulu berean metodo aukera ezin zabalagoa jorratzen da, hasi aurrez-aurreko eskoletatik (metodo tradizionala, IKTen erabilera xumea) eta urruneko irakaskuntza moduetara arte (ikasketa banatua, IKTen erabilera konplexua eta bateratua).

Azkenik, egungo eta etorkizuneko metodo hau kalitatea hobetuko duen jokabide egokitzat proposa daiteke. Egun darabilgun sistema hobe dezake baliabide digitalak eta birtualizazio bitartekoak erabiliz. Horrela, ikasle sortzaileak, ekintzaileak eta berritzaileak lortuko ditugu; hezkuntza komunitateko kide garen guztiok jasotzen ditugun datuak aztertzen eta interpretatzen jakin ahal izango dugu; eta gaitasun guztiak sustatzen asmatuko dugu elkarrekintzan eta lankidetzan arituz.

Behar bakoitzari egokitutako ikaskuntza ibilbideak ez dira apropostzat jotzen arrazoi pedagogikoengatik soilik, aitzitik, baita lan merkatuaren eskari direlako ere. Azken honek etengabeko prestakuntzan jardutea eskatzen digu gutariko bakoitzaren lan bizitza aldi guztian. Ildo honi jarraiki, ezinbestekoa dirudi, ikaskuntza prozesuan parte hartzen duten guztiek taldean lan egiteko eta lankidetzan jarduteko duten gaitasuna balioestea. Saiakera horretan IKTak ezin baliagarriagoak izango zaizkigu.

5.2. Eskola erdi-presentziala (Blended-learning)

Aurrez aurreko hezkuntza sisteman erabiltzen diren metodologiak zein baliabideak Internet sareak eta aro digitalak ekarri dizkigun bitartekoekin zein hezkuntzako ildo berriak inplementatzeko grinak uztartze aldera garatu dira eskola modu erdi-presentzialak edo *B-learning* erakoak (García Aretio, 2018).

Bateratze prozesuaren xedea hainbat helburutan adarkatzen da. Eskolan bertako irakaskuntzak dituen ezintasunak teknologia berrien bidez osatzeko; ohiko jarraibideen ospeari eutsiz IKTak ohiturak gaurkotzeko erabiltze aldera; baina, batez ere, eraginkortasunaren aldeko hautua da.

Horrela, onurei so, ikasleek bakarka eta beraien neurrira egokitutako abiaduran ikas dezakete. Autonomia horrek irakaslea ere aske uzten du ikasle bakoitzari dagokion laguntza edo gidaritza berezitua eskaintzeko. Irakas-ikaste prozesua malguago bihurtu du eta ikaslea autonomoagoa izateaz gain egiten ari denarekiko arduratsuagoa ere bada.

Hezkuntza erakundeen aldetik egin beharreko inbertsioak murrizten ditu (bertaratutako orduak gutxiago direnez, administrazioak irakasle gutxiago behar dituelakoan). Testuliburuak ere gutxiago erabiltzen dira sarean jartzen baitira baliabide guztiak.

Ikasleen ikaste bidearekiko kontrola zehatzagoa izan ohi da. Nola irakasleak irakasleenarekiko, hala ikasleek haietariko bakoitza igarotzen ari den xendrarekiko ere.

Desabantaila edo arriskuen artean, berriz, teknologiaren (tresnak eta baliabideak) oso mendeko izanik, aurrez dena ongi antolatuta ez badago eta zuzen burutzen ez bada emaitzak ez dira goian aipatutakoen neurrikoak izango. Aplikazio eta tresneria fidagarria eta berme nahikoa eskaintzen duena erabiltzea ezinbestekoa da.

Talde-lana kudeatzea ere ez da oso erraza, ikasle taldea bakoitza bere testuinguruan baitabil eta denak elkarretaratzea zaila izan baitaiteke.

Irakasleentzat lan gogorra da une oro edo behar den bakoitzean ikasle bakoitzak behar duen erantzun esanguratsua ematea (denbora asko kentzen dio). Ahal den heinean, ikasleen motibazioei atxikitako ibilbidea osatzeko aukera eskaintzen saiatzen den irakasleak ikastaroak ongi diseinatzen asmatu behar du eta hori ere bi ahoko ezpata suerta daiteke banakoen esku dagoen neurrian.

Aurreko puntuari lotuta, aplikazio edo tresneria fidagarria erabiltzeak (sare hornitzaileak tartean) inbertsioa areagotu beharra dakar; nola hezkuntza erakundeei dagokienean hala ikasle bakoitzari bagagozkio.

Honezkero eman ditut zenbait arrazoi metodo honen alde egiteko; ikasleen beharrek eta aukerek haientzat errazagoa izan litekeen testuingurua eskaintzea, ikaslearen autonomia areagotuz lantzen ari den prozesuaren kontrola eskura dezan lortzea edo ikastetxearen zerbitzu eskaintza zabaltzea eta erabiltzaileak erakartzea, besteak beste.

6. ANTZEKO LANAK

6.1. *Arian*. Autoikaskuntza metodoa¹²

Elkar argitaletxearen euskara irakasteko tresna sorta. Hastapenean ikasleek bakarka ikasteko diseinatu zen arren (*Bakarka* zeritzon metodoan du hastapena), aukera ederra eskaintzen dio hezkuntza arloan diharduen orori, nola aurrez aurreko eskolak emanaz mapa-orri gisa, hala tresna edo baliabide lagungarri eta osagarri gisa.

Komunikazio gaitasunak sustatzea du xede eta horretarako testuinguruak eta ikasi beharreko trebeziatzako kokaleku ahalik eta errealena sortzen saiatzen da. Ikuspegi honek alderdi gramatikal soilei hasierako proiektuan emandako garrantzia orekatzea ekarri du.

Asmook betetzeko testuliburu bat argitaratu dute ikas-irakaste prozesuan lema lanak egiten dituen. Horren osagarri ariketa liburu bat ere badago, landutako hizkuntza alderdietan gehiago trebatzen laguntze aldera. Baliabide biak ala biak datoz idatzizko nahiz audio bidezko materialez hornituta. Halaber, ikaslearen hizkuntza mailara egokitutako irakurgai hautatuak ere proposatzen dituzte, testuz eta haien inguruko galdetegi osatuak eta baita hiztegi kontuak jorratzeko atazekin ere.

Azken hiru urteotan erabili izan dudan metodo honek askotariko aukerak eskaini dizkit nola eskolak antolatzeke garaian, hala ikasleei egitekoak proposatzerakoan. Tresna aproposa delakoan nago eta ikasleen jarrera zein emaitzak nahikoa aldekoak direla esan dezaket.

6.2. *Primeran*. Ahalegin publiko-pribatua¹³

HABEk, AEKk eta *Elhuyar*-ek elkarlanean paratutako metodoak baditu aurreko atalekoarekin antzekotasunak, alabaina, hastapenak bereizten ditu, izan ere, honako hau lehen urratsetik pentsatu baita ikasgelan erabil dadin. Horretan HABEren eta AEKren eskarmentuak berebiziko garrantzia duela esatea bidezkoa delakoan nago.

Aurreko metodoak bezala komunikazio ekintzetara bideratzen du ikaste

¹²Ikus: https://labur.eus/Arian_Hezkt18

¹³A2 mailako liburuak eskuragarri hemen: https://labur.eus/PrimeranA2_Eskuragari

ekintzaren muina. Hori egin ahal izateko eskuliburuaz gain ariketa liburu bat izango du ikasleak eta, orobat, irakasleak aparteko gidaritza eskainiko dion berariazko eskuliburua izango du eskura.

Liburuki hauen bidez helduak euskalduntzeko lagungarri den metodoa A1 eta A2 mailatarako diseinatu eta plazaratu zuten. Horiek dira egun eskuragarri daudenak. Nolanahi ere, B1 mailarako osatu duten proposamenaren berri izateaz gain, egitasmoaren alderdi digitala atzitzeko baimen berezia izan dut eta bertako zenbait alderdi proban jartzekoa ere bai.

Txosten honetan aurkezten dudana tresna osatzeari ekin nionean nituen helburuetariko asko betetzen ditu *Primeran*-en bertsio digitalak. Komunikazio jarduera zehatzak proposatzen ditu gai edo atal bakoitzean eta hasieratik bukaerara, urratsez urrats hautatutako gaitasunak trebatze aldera eskaintzen zaizkio egitekoak erabiltzaileari.

Moodle plataforma eta bertako baliabideak darabiltza egin asmo dituenak erdiesteko. Aipagarriak dira ondokoak: foroa, wikia, inkesta, ikasgaia, galdetegia, zeregina edo glosategia. Nire ikastaroan ere erabili ditut gehienak eta bakoitzaren onurak edo erabilgarritasuna azaldua dut aurreragoko ataletan.

Esana dut goragoko lerroetan nire egitasmoarekiko antzekotasunik baduela ahalegin honek. Testuinguru zabalean ere, metodo erdi-presentziala erabiltzen duela nabarmendu beharrekotzat dut. Izan ere, aurrez aurreko saioetan zein esparru birtualekoetan proposatzen zaizkio ikasleari osatu beharrekoak. Elkarrekintza bultzatzearen aldeko jarrera nabari zaio ildo nagusi gisa.

6.3. *Learnlight*. Arlo pribatuko saiakera

Aurrez aurrekoa *online* ikasketa moduarekin bateratzen duten metodoak dira *Blended learning* deituak, aurreko atalean azaletik bederen adierazi dugun gisan. Metodo horri jarraiki etengabeko prestakuntzaren arloan diharduen *Learnlight* enpresaren eskaintza, hein batean bada ere, ezagutzeko aukera izan dut eta jarraian, horren berri ematen ahaleginduko naiz.

Ikastarorako frantsesa aukeratu genuen trebatzeko hizkuntza gisa, B1 mailakoa hain zuzen. Aurrez aurreko tratuaz geniharduen hasierako paragrafoan baina izatez *online* gauzatzen dira harreman guztiak (telefono edo Skype bidezko tutoretza saioak hartzen dira aurrez aurrekotzat).

Ikasleak nahikoa autonomia du eskaintzen zaizkion ikastaroen artean burutu nahi dituenak aukeratzeko, irakasleak ere hauta ditzake eta baita bere egutegia zein ordutegia zehazteko ere (tutoretza saioak bateratzeko, batik bat).

Bost eratako jarduerak proposatzen dira: gramatika lantzekoak, hiztegiari lotutakoak, idazmena trebatzekoak, entzumena neurtzekoak eta aurrez aurreko saioen bidez ahozko adierazmena jorratzekoak. Unean unean egindako lanean lortutako emaitzak jasotzen ditu plataformak eta horien arabera ikasleak badu bere garapenaren nolabaiteko erreferentzia. Zeinahi ataza errepikatzeko aukera eskaintzen da, zeina osorik egin daitekeen berriz edota txartzat emandako atalak berrikusteko modua eskaintzen den.

Ariketa batzuk baino ez ditut egin baina proposatutako gaiak noiznahikoak eta aldi berean garaikideak iruditu zaizkit (nola irakurgaiak, hala entzungaiak). Idazteko zenbait argibide edo erantzun beharreko galdera eskainitako gidalerroak nahiko ongi zehazten zirelakoan nago.

Irakasleek ikasleekin duten harremanaren garrantziaz ohartzeko balio izan dit esperientziak. Erakutsitako ezintasunei adeitasunez erantzuteak eta solasaldia aberasgarria izan dadin lortzea haien esku baitago neurri handi batean. Zuzenketa datu-orriak darabiltzate ahozko saioetan egindako hutsegiteak lantzen jarraitzeko.

Bakarka ikasteko metodoa izaki (*Arian* metodoaren parekide, zentzu horretan), ez dago ikaskideen arteko elkarrekintzarentzat tokirik. Buruz buruko elkarrekintzak gerta daitezkeen arren, irakasleekin baino ez dira izango.

7. METODOLOGIA eta TRESNAK

Osatu dugun egitasmoaren xedea, irakasle gisa HEOn darabildan metodologiarekin baliabide digitalak eta sarekoak bateratzea da. Hala, ikasleak eskolara bertaratuta lantzen dutena beraien kabuz, nonahi jorratzen jarraitzeko aukera izan bide dute.

7.1. Prozedura

Zenbait urtetan aurrez aurreko ikastaroak ematen aritu izanik, batik bat, ondoko iturrietatik edan izan dut ikastaroak diseinatzeko eta antolatzen:

- HEOetan B1 mailarako proposatzen den [programazioa](#).
- Elkar argitaletxearen Arian metodoaren [testuliburua](#) zein ariketa liburua.
- HABEren [ikasbil](#) guneko baliabideak.

Asteroko egitura duen ikastaroaren bizkarrezurra blog eran eskuratzeko aukera izan dute azken pare bat urteotan ikasleek. Eskolara etortzerik ez zutenean edo lehen egindakoak berrikusteko eskaintza egokitzen jo izan baitugu. Egitura hori *blended-learning* metodologiara egokitzeko saiakera da lan honetan azaltzen dena.

7.2. Baliabideak

Egitasmo hau osatzeko ikaskuntza kudeatzeko plataforma bat baliatu asmo genuen eta gure hezkuntza sisteman oso hedatua dagoen *Moodle* sistema aukeratu dugu, batik bat, eskuragarri dugulako erabiltzeko prest eta bitarteko oro nahiko probatuta daudelako ikas-irakaste prozesu askotan (Ezeiza, 2018). Bestalde, kode irekiko tresna bat izaki gizatalde guztiekiko arduratsua dela aintzat hartzekotzat dugu. Ikaskideen eta irakaslearen arteko elkarrekintza sustatzeko hainbat bitarteko ditu eta izan ditzakeen mentsak modulu berriekin osatzeko aukera eskaintzen du.

Nolanahi ere, jakinaren gainean gaude, tresna hau zurruna suerta daitekeela. Eskaintza oparoa izanik ere ez da batere erraza ezagutza maila handirik gabe ahalbide guztien erabilera egokia egitea eta orobat, norbere beharretara nahi bezala bihurtzea (Camacho eta Lonbide, 2016).

Horiek gogoan izanik ere, ikas-materialen biltegi lanerako plataforma egokia da. Sortzen edo biltzen dituzun materialak bertan gorde eta antola ditzakezulako, behar edo nahi ahala berrerabiltzeko nahiz eraldatzeko. Ikasleari unitate didaktiko bideratuak

eta aldi berean haien kasa aritzeko modukoak prestatzeko tresna baliagarria da zinez. Baliabideen berrerabilpenak berebiziko garrantzia duenez, arlo horretan plataforma hautatuak egiten duen ekarpenaren inguruan ere aritu nahi nuke motzean.

Izan ere, norberak zein beste nornahik prestatutako hezkuntza materiala berrerabiltzeko ezinbestekoa da formatuen bateragarritasuna. Egoerarik idealenean zeinahi testuingurutan edozein ariketa txertatu eta baliatu ahal izatea litzateke helburua. Alabaina, formatu eta bertsio anabasa nahasgarriarekin egiten dugu topo. Berrerabili nahi dugun materiala zenbat eta txikiagoa izan (galdetegi, gurutzegramak, bideo... bakarra), orduan eta errazagoa izango da testuinguru berrietan txertatzea¹⁴. Formatuari dagokionez, ahalik eta estandarrenak edo maizen erabiltzen direnak hautatzea hobetsi beharko genuke. Hala ere, formatu hauek editagarriak direnez, edonork molda ditzake bertako jarduerak bakoitzaren beharren arabera, beti ere, arauak eta lizentziak kontutan hartuz.

Ikastaro oso bat, unitate didaktiko bat edo ariketa multzo bat barnebiltzen duen bitarteko bat osatzen badugu, bilduma osoaren bateragarritasunari begiratu behar diogu. Formatu anabasa antolatu asmoz sortu zen *SCORM*¹⁵ erreferentzia ereduak, zeinak hezkuntzan ohikoenak diren estandarrak biltzen dituen. Horrez gain, jarraibideak ere eskaintzen ditu nonahi eta zeinahi ingurunetara alda daitezkeen hezkuntza materiala eratzeko. Horrela eratutako paketeak errazago inporta daitezke *Moodle* bezalako plataformetara.

Ataza berezituago bati begira, hots, askotan erabiltzen diren galdetegiak osatzeko arauei so, bada beste arau multzo ezarri bat, QTI delakoa. Askotariko galdera eta erantzun ereduak izan arren, denak bateratzen ditu erreferentzia honek berriz erabiltzeko gaitasuna xede izanik. *Moodle*-ek estandar hauek denak aintzat hartzea bermea da bere aldeko erabakia hartzen duenarentzat.

Horrenbestez, argi izan dut ikasketa konbinatuan benetan lagungarria dela plataforma hau; izan ere, sendoa da eta berme handia eskaintzen dio ikasleari noiznahi nonahitik atzitzeko eta nahieran ikaste lanetan jarduteko.

Moodle plataforma eta bertako baliabide zein tresnak erabiliko ditugu nagusiki, baina baita sareko beste zenbait gunetan eskainitako bideo eta audio baliabideak ere. Orobat, testu prozesatzaileaz gain, irudia eta bideoa moldatzeko zenbait tresna ere erabili beharko dira: *Gimp*¹⁶, *OpenShot*¹⁷. Gainera, hizkuntzaren prozesamenduko

14Ana Arruarteri hemen irakurria: <https://labur.eus/HezkuntzamaterialenBerrerabilgarritasuna>

15SCORM erreferentzia ereduaren eskuliburua. Ikus <https://labur.eus/ScormTxostenaHezIKT18>


16Ikus: <https://www.gimp.org/>

17Ikus: <https://www.openshot.org/>

tresnak izan ditut esku artean. Batetik, ikastaroan jarri beharreko testu egokiak bilatzeko eta bestetik ikasleengandik jasotako testuen hustuketak eginik haien ekoizpenetako alderdi esanguratsuak interpretatzen lagungarri izan zaizkidanak. Lan horretan *Analhitza* (Otegi et al. 2017) termino erauzle eta analizatzailea baliatu dut. Beronek zeinahi testutan maiztasunik handieneko hitz esanguratsuak zerrendatzen ditu eta ikasleek astero Moodle ikastaroan txertatu behar duten hiztegiko sarrera berrien lana osatzeko erabilgarri izan zait.

■ Erabilera

Aipatutako tresna digitalak hainbat helburutarako erabili ditugu. Testu prozesatzaileak eta Moodle-ek eskainitako antzeko bitartekoak idazmena lantzeko egokiak izango dira. Lagunarteko solasa bidera genezake foroetako iruzkinekin zein txateko jardunak bultzatuta. Hona foroetarako sarbidea erakusten duen irudi bat.



4. irudia. Foroan iruzkintzen

Irudiak zein testuak uztartuta eskaini ditugu haien inguruko hausnarketa sustatzeko eta bidenabar, aurrez-aurreko eskoletan ahozko elkarrekintza behar bezala garatzen lagun diezagun. Sarean bildutako irudi eta testu esanguratsuak euskaratuz edo gure asmoetarako egokituz osatu dugun atazaz ari naiz. Azpiko irudian ikus daiteke horren adibide bat.

Itxuraren morroi ala aske?

Astero bezala irudiak eta esaldiak uztartzen dituzten umorezko ekoizpenak iruzkintzeko tartea hartuko dugu.

Oraingoan, "meme" honi buruz aritzea proposatzen dizuegu:



5. irudia. Meme baten adibidea

Audio eta bideo formatuak ezinbestekoak izango zaizkigu ulermena trebatzeko. Egiazko ekoizpenak baliatuz gero, benetako egoeratan murgiltzeko aukera eskainiko diegu ikasleei.

Era berean, ikasleek beraien kabuz ikertzen jarrai dezaten hainbat esteka¹⁸ erabili ditugu jaien jakin-mina asetzen lagungarri izango zaizkien webguneetara bidea egiteko.

Ikas ibilbide hau (erdi-presentziala) aukeratzen duena jakinaren gainean da, eskuarki, gutxieneko gaitasun digitalen jabe izan behar duela. Nolanahi ere, balizko arrakala arintzen saiatu gara ikastaroaren diseinuan, aurrez-aurreko saioetan ditugun askotariko ikasleak ere ibilbide berriotan sar daitezzen.

¹⁸Esaterako, [ikasbil](#), [Ehulku](#)ren aholkuak eta unean unean ager daitezkeenak. Are komunikabideetarako estekak ere ([Berria](#), [EITB](#)...)

8. IKASTUNITATEA (EMAITZAK)

Esana geratu da gure ikastetxeetako erabiltzaileen profila zein den. Nerabe gutxi batzuk salbu, langile helduak dira nagusiki ikasletzat dauzkagunak. Adinari dagokionean ez dago goiko mugarik eta asko dira erretiroa hartu ostean bertaratzen zaizkigunak ere. Gauzak horrela, nire ikastaroan parte hartu bide duten ikasleak hamarretik hogeira arteko kopuruan elkartuko dira (urtearen eta matrikulazio berezitasunen arabera). Hauen artean zenbateko esanguratsua izan ohi da lanean dihardutenena edota eskola guztietara agertu ezin direnena. Guztientzat eskuragarria izan asmo duen ikastaroa diseinatu dugu, hortaz (bertaratzea oztopo izan ez dadin).

Ikasle taldearen multzo aipagarri bat lanerako egiaztagiri beharrak bultzatuta etortzen da eta gainerakoak euskara ama-hizkuntza edo nahiko hurbilekoa izanik alfabetatu eta hobeto baliatzen ikasi asmoz hurbiltzen zaizkigu.

8.1. Ikastaroaren nondik norakoak

Astez aste antolatutako ikastaroan, aurrez aurreko saio bat izango dugu. Nagusiki orduan eskainiko zaizkio ikasleari hurrengo bertaratu arte landu beharrekoen gaineko argibideak. Zenbait ataza (ikasleen behar eta eskaeren arabera) eskolan osatuko ditugu eta gainerakoak (zenbait sendotzekoak eta beste batzuk berriagoak) beraien kabuz landuko dituzte, komeni zaien garaian eta moduan. Hurrengo astean hasieran sortu izan daitezkeen zalantza eta galderen berri jasoko da eta ikaskideen laguntzarekin lehenik nahiz irakaslearen argibideekin gero, xede ditugun trebeziak berengana ditzaten saiatuko gara.

Bost atal bereizten dira proposatutako ikastaroaren multzo bakoitzean (sei sail paratu ditugu). Aurrenekoa, goian aipatutako berrikuste lanei dagokiona da. Bigarren atalean, eduki edo jakingai berria eskainiko da eta gainerako ataletan ulermena (irakurmena zein entzumena) eta adierazteko gaitasuna (idatzizkoa nahiz ahozkoa) landuko dira.

Ikastaroa Moodle plataforma osatuko denez, harako sarbidea izango dute ikasleek. Aste batean egin daitezkeen atazen deskribapena egingo dut jarraian. Materialaren berri emateaz gain, berau erabiltzeko moduez ere arituko naiz.

Ondorengo irudian jaso duguna da ikasleak ikusgai izango duen informazioa ikastarora sartzen den lehen aldi. Ezkerreko nabigazio barran atalez atal mugitzeko aukerak (nahi izatera ezkuta daitezke) daude eta erdigunean ikastaroa bera.

- **Orokorra**

Orokorra izeneko atala noiznahi eskura izango dituen baliabide soilez hornitu dugu. Alde batetik, unean uneko zalantzak, kezak, kexak edo nahi den bezalako komunikazioak irakasleari zein ikaskideen helarazteko foro iraunkor bat daukagu (*Berriak eta oharra*). Bestetik, ikastetxearen berri izateko eta jarduera administratibo oro gauzatzeko gunera bideratuko dituen esteka ezarri da; Eibarko HEOn webgunera lotuta dagoena, hain zuzen. Azken osagaia *Ikaslearen gidaliburua* da. Atalez atal erabiltzaileek egin beharrekoen inguruan azalpen arina baina orohartzailea eskaintzen duen liburu gisakoa.

Elementu hauek une oro agerian izango dituzte ikasleek. Hasera batean, maiz baliatuko dituzten tresnak direlako, nahiz eta ikastaroan aurrera egin ahala eta ohiko jardunera egokitzen diren neurrian gutxiago kontsultatu behar izango duten.

Euskara B1 (erdipresentziala)

Partaideak

Dominak

Gaitasunak

Kalifikazioak

- Orokorra
- 1. asteko kontuak
- 2. asteko kontuak
- 3. asteko kontuak
- 4. asteko kontuak
- 5. asteko kontuak
- 6. asteko kontuak

Aginte-panela

Gunearen hasiera

Egutegia

Fitxategi pribatuak

Nire ikastaroak

Euskara B1 (erdipresentziala)

Euskara ikastaro erdi-presentziala HEOn, B1 maila

[Aginte-panela](#) / [Nire ikastaroak](#) / [Euskara B1 \(erdipresentziala\)](#)

Zure aurrerapena

- Berriak eta oharra
- Eibarko HEO
- Ikaslearen gidaliburua

Ikastetxearen berri, bizikidetzara arauak zein baldintzak

Ikaslearen gidaliburua



Astez aste antolatutako ikastaroan, aurrez aurreko saio bat izan bide dugu. Nagusiki orduan eskainiko zaizkizu hurrengo bertaratu arte landu beharrekoen gaineko argibideak. Zenbait ataza (zure eta zure ikaskideen behar eta eskaeren arabera) eskolan osatuko ditugu eta gainerakoak (zenbait sendotzekoak eta beste batzuk berriagoak) zuen kabuz landuko dituzue, komeni zaizuen garaian eta moduan. Hurrengo astearen hasieran sortu izan daitezkeen zalantza eta galderen berri jasoko da eta ikaskideen laguntzarekin lehenik nahiz irakaslearen argibideekin gero, xede ditugun trebeziak zuengana ditzazuen saiatuko gara.

Bost atal bereizten dira proposatutako ikastaroaren multzo bakoitzean (sei sail paratu ditugu). Aurrenekoa, goian aipatutako berrikuste lanei dagokiona da. Bigarren atalean, eduki edo jakingai berria eskainiko da eta gainerako ataletan ulermena (irakurmena zein entzumena) eta adierazteko gaitasuna (idatzizkoa nahiz ahozkoa) landuko dira.

1. asteko kontuak

Irailaren 26tik urriaren 3ra

Irakaslea: Mikel Osinalde Agirre (euskara6f@gmail.com)



6. irudia. Ikastaroaren irudi orokorra

Sailen izenburuei erreparatzea nahikoa da astekako formatua lehenetsi dela ikusteko. Sailak ireki aurretik dagokion data tartearen eta irakaslearen helbidearen berri jasoko dute. Gainera, lehen begi kolpean antzeman dezake erabiltzaileak zertaz arituko garen epealdi horretan (irudi hautatuak). Argi izango ez balu, idatzizko azalpen arina dauka eta azpian egiteko dituen atazen zenbatekoa.

5. asteko kontuak



Urriaren 24tik 31ra

Irakaslea: Mikel Osinalde Agirre
(euskara6f@gmail.com)

Aste honetan betebeharrak, debekuak eta arauak arituko gara. Horretarako euskarak erabilgarri dituen zenbait baliabide landuko ditugu testuak irakurri, entzunez eta sortuz (nola idatziz ala ahoz).

Glosategia: 1 Fitxategia: 1 Tailerra: 1 Orriak: 2 Zereginak: 2 Foroa: 1 Galdetegiak: 2

Aurrerapena: 0 / 10

7. irudia. Sailen kanpoko itxura

- **Berrikuste jarduerak**

Noan orain, gaingiroki sail bakoitza osatzen duten bost atalak erakusten. Hurrenkera bat ezarri zaion arren, ez dago nahitaez hori jarraitu beharrik. Irakaslearen zein ikasleen behar edo nahien arabera aldaketak izan daitezke. Kontuak kontu, ikastaroa diseinatzerakoan aurreko astean landutako *Berrikuste jarduerak* aurreikusi ditugu ikasleen errutinan hausnarketa eta autoebaluazio jarduerak finkatze aldera.

Jarduera horietarik bat glosategia darabilena da. Asteko hiztegia atala osatzeko Moodlek eskaintako definizio tresna baliatuko dugu. Batik bat eskolaz kanpo eta aurrez-aurreko eguna baino lehen osatzeko lana da baina noiznahi gehitu daiteke sarreraren bat. Lexikoa beraienganatzen doazela elkarren aurkikuntzak ere hautemango dituzte eta ikastaroa amaitzerako hiztegi mardula osatuko dute elkarrekin. Honek elkarrekintza bultzatzeaz gain, taldearen arakatze gaitasun handiagoa profitatze modua eskaintzen du (ikus 8. irudia).

Orain arte aurkitutako hitz edo egitura berrien zerrenda eta azalpena jaso dezakezu hemen.

Gutxienez sarrera bat egizu.

Bilatu

Bilatu testu osoan

Gehitu sarrera

Alfabetikoki

Kategoriaren arabera bilatu

Bilatu glosategian aurkibide hau erabiliz

Berezia | [A](#) | [B](#) | [C](#) | [D](#) | [E](#) | [F](#) | [G](#) | [H](#) | [I](#) | [J](#) | [K](#) | [L](#) | [M](#) | [N](#) | [Ñ](#) | [O](#) | [P](#) | [Q](#) | [R](#) | [S](#) | [T](#) | [U](#) | [V](#) | [W](#) | [X](#) | [Y](#) | [Z](#) | **GUZTIAK**

E

Emakume

Gizaki emea, bereziki heldua dena.

ITURRIA: http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=emakume&option=com_hiztegiabilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu&bila=bai



8. irudia. Glosategia, taldeko hiztegia

Atalean txertatutako bigarren elementua galderak eta zalantzak argitzeko dokumentua da. Aurrez aurreko saioetan baliatuko den idatzizko tresna da. Astero egiten diren idazlanetatik ateratako zuzengaiekin irakasleak sortutako ariketa sorta. Ikasleek taldeka lantzen dute. Batetik elkarrekin erabakiko dute jarritako esaldia, egitura edo hitza zuzena, egokia, okerra edo desegokia den. Ondoren, berriz, elkarrekin adostutako ordaina eskainiko dute, hala behar izatera. Plataforman txertatzearen zioa noiznahi atzera egin eta berrikusteko edota berrerabiltzeko aukera izatea da (nola ikasleek, hala irakasleak).

Ikaskideen idazlanetako ikasg

Zuzendu gaizki dagoena:

Bi liburu saltzen ditut egongela txikia edukitzeagatik.

Telebista bi kolore ditu.

Liburuak lau orriak ditu.

Bi erosteko mota daukazu.

9. irudia. Talde lanean ikertzeko eta erabakitzeko tresna

Ebaluazio elementu bat ere barnebiltzen dute berrikuste jarduerak. Dagoeneko txostenean jaso dudan errubrikaren bidez¹⁹, autoebaluazio ariketa antolatzeko tailer bati dagokio. Ekoizpenen inguruko irizpenak irakasleak egingo ditu baina baita ikaskideek hurkoaren lanari zein bakoitzak bere buruari ere. Tailerrak eskaintzen dituen aukerak asko eta askotarikoak dira, haatik, garrantzitsuena zera da, ikasleek beraien hutsuneak eta indarguneak hobeto ezagutzen eta hobekuntza bideak aurkitzen lagungarria dela.

Ezarpenak zehazteko aldia Aldatu ezarpenak zehazteko aldira <input type="radio"/>	Bidalketa-aldia Aldatu bidalketa-aldira <input type="radio"/>	Ebaluazio-aldia Oraingo fasea ●	Kalifikazioa ebaluatzeko aldia Aldatu kalifikazioa ebaluatzeko aldira <input type="radio"/>	Itxita Itxi tailerra <input type="radio"/>
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Zehaztu tailerraren deskribapena ✓ Eman bidalketa egiteko argibideak ✓ Editatu ebaluazio-formularioa 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Eman ebaluazioa egiteko argibideak ✓ Bidali zure lana ✓ Esleitu bidalketak hainbeste espero dira: 4 bidalitakoak: 2 esleitzekoak: 0 ⓘ Gutxienez egileetako batek ez du lanik bidali 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ebaluatu kideak denora: 1 bidali gabe: 0 ✓ Aldatu hurrengo fasera 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Kalkulatu bidalketaren kalifikazioak hainbeste espero dira: 4 kalkulatutakoak: 0 ✓ Kalkulatu ebaluazioaren kalifikazioak hainbeste espero dira: 4 kalkulatutakoak: 0 ✓ Eman itxiera bat 	

10. irudia. Ebaluazio tailerraren aukerak

- **Eduki berriak**

Bigarren atala *eduki berriak* lantzeko prestatu da. Aurrez aurreko eskoletan lantzen da, eskuarki. Alabaina, nornahik bere kabuz osatzeko moduko atazak dauzka eta zeinahi galdera izanez gero, beti dago foroa zein irakaslearen helbide elektronikoa zalantzak argitzeko. Eskolan *Arian* metodoa erabiltzen dugula esana dut honezkero, bada bertako materiala moldatuta osatu ditut gramatika gaiei buruzko datu eta informazio laburtua biltzen duten eskema erako orriak. Orri bakoitzaren ostean, ariketa sorta bat proposatzen da ikasitakoa ikasleak ongi mamurtu dezan.

Ariketak baldintzatuta daude. Batzuek informazio orria irakurri izana eskatzen dute eta aurreko ariketa egin izana bestetzuek.

¹⁹Ariketa galdetegi gisa egingo dute baina errubrika taula ere eskura izango dute (plataformak igorrita). Eskolako azterketatan erabiltzen den mailako zuzenketa taularen oso antzekoa eta irakasleari dokumentua igorri aurretik gainbegiratu izango dutena (*online* egitekoa). Hemen: <https://labur.eus/errubrikaHezkt18>

1. galdera

Zuzena zati batean

0,48 lortuta gehienezko 10,00 -(e)tik

Markatu galdera

Editatu galdera

Irratiak ez du oraindik esan zeinek irabazi ✓ partidua

Guk ez dakigu nork esan ✓ hori

Atso horri ezin diot ulertu zer nahi ✓ horrek

Zure lagunari esango diot zer egin behar ✓

Esango didazu zenbat balio ✗ horrek?

Mutikoek ez dute esan nahi nondik atera ✗ dirua

Ikusi nahi dut nolako etxea ✗ auzokoek

Ikusi nahi duzue zer erosi ✗ ?

Izebak galdetu dit ea nolako oparia nahi ✗ nik

Ez dut ulertzen zergatik egin ✗ hori

Erahaki ezazu haragia ala arraina hartuko ✗

11. irudia. Gramatika ariketa

- **Irakurmena lantzen**

Irakurmena lantzen izendatu dugun atalean (hirugarrena). Bi jarduera egitea proposatzen da. Testu irakurketa eta haren inguruko galdetegia erantzutea izaten da ereduzko ariketa bat. Ariketa hori bestela planteatu daiteke, ordea, iruzkinak forora bidaltzeko eskatuta edo aurrez aurreko eskoletan horri buruz arituta. Hainbat eratako testuak erabili ditut sarean nahiz liburuetan bilduak. Adibide gisa, publikoki argitaratua den idazki bat aipatuko dut, halakoak hedatzea xede duen webgune batean eskuratua²⁰. Hala ere, azterketatan erabiltzen diren testuak hobesten dituzte ikasleek eta halako bat jarri dut irudian.

20Booktegi egitasmoaz ari naiz: <http://booktegi.eus/index.php>

Mendizale asko oso gogotsuak eta ausartak dira noski, baina horrek ez du esan nahi zuhurak ez (1) . Mendia ezagutzeak irakatsi die ezinbestekoa dela segurtasunari berebiziko garrantzia (2) , ondo dakite-eta zer dagoen jokoan gizakiak bere indarrak mendiarekin neurtzen dituenean. Segurtasun eskakizunek, jakina, lotura estua dute txangoaren zailtasunarekin, ez baita gauza bera Donostia (3) mendietara irtetea edota, konparazio batera, negu gorrian izotz gaineko eskalada egitea. Horixe da, alegia, gakoetako bat: desafioaren zailtasuna (4) jakitea eta kasu bakoitzean egokiak diren neurriak hartzea. Eta aurreneko betebeharra neurritz kanpoko abenturetan ez sartzea da, zailtasun maila apurka-apurka areagotzea eta, bien bitartean, gero eta handiagoak izango diren (5) aurre egiteko prestatzea.

12. irudia. Irakurmena neurtzeko ariketa

Gaitasun hau lantzeko darabiltzagun beste elementuak *Meme* delakoak dira (baita komiki-bandak ere). Sarean bildu eta behar izatera euskarara egokitzen dira, ondoren, aurre-aurreko eskoletan joeran dauden gaiei buruz aritzeko edota atseden tarte bat hartzeko baliatzen ditugu (ariketa hauek *online* zein aurrez aurre egin daitezke). Azken xedea, balizko umore gakoak ulertzea eta ondorengo hausnarketa iruzkinen bidez jendarteratzea da. Horretarako foroak baliatzen dira ikaskideek elkarren iritzien eta, halakorik izanez gero, ateraldien berri izan dezaten; are elkarrekintzan ari daitezen ere. Hona adibide bat:

Astia vs talentua

Astero bezala irudiak eta esaldiak uztartzen dituzten umorezko ekoizpenak iruzkintzeko tarte hartuko dugu.

Oraingoa, tira honi buruz aritzea proposatzen dizuegu:



© Scott Adams, Inc./Dist. by UFS, Inc.

13. irudia. Komiki-banda foroan

- **Entzumena lantzen**

Ulermen gaitasuna lantzeko prozedura antzekoa da irakurmena lantzerakoan darabilguna eta *Entzumena lantzeko* baliatutakoa. Asteko atazen multzoan laugarren dator zerrendan, nahiz eta, aipatu dugun bezala, hurrenkera ez den zurruna ezta berariaz ezarria ere. Aurrez aurreko eskoletan ikasleen aldatuari so moldatzen duguna antolatzeko erabiltzaileek beraien autonomia balia dezakete.

Gehenez bost minutuko audio testuak eskaintzen ditugu ikasleen ulermena proban jartzeko. Irudi bidezko laguntza ere eskaintzen da batzuetan, bideoekin eta are azpidatzitako pasarteekin ere. Jarraibideetan bi entzunaldi iradokitzen ditugun arren, nahi adina aldiz entzuteko eran jarri ditugu audioak. Inoiz galdetegia eta entzungaia berezita ageri dira ahaleginari zailtasun puntu bat emateko.

Galderen formatuari dagokionez, esaldiak osatzeko ariketak izan daitezke, egia ala gezurra motakoak edota erantzun zabal eta askeagokoak (iruzkinak egitekoak). Aukera anitzeko egiturak maiz proposatzen ditugu erantzun okerrentzako feedback egokia ematen saiatuta.

Antoni Gaudi arkitektoa



Adi entzun jarraian duzun **audioa** eta eta saiatu aukera egokia hobesten.



1. galdera
Erantzun gabea
Honela puntuatu 1,00
Markatu galdera
Editatu

Nolako gaztaroa izan zuen Antoni Gaudik?

Aukera ezazu bat:

- a. Osasun-arazoak izan zituen txikitatik.
- b. Amasa hartzeko arazoak izaten zituen.
- c. Harreman estuak izan zituen bere adinekoekin.

14. irudia. Entzumen ariketa (3 aukera 1 zuzena)

Eskuetan erabili dudan eta egunerokoan darabildan materiala HEOetako

azterketa zaharretatik bildutakoek, HABEren Ikasbil biltegitik eskuratutakoek eta unean uneko beharretara egokitu izan ditudan pasarte egokituek osatzen dute.

Atal honetan ere, idatziaren ulermenari zegokionean egin bezala, giro pizgarria izan daitekeen materiala ekartzen saiatu naiz. Taldearen jarrera erabat aldatzen duten atazak dira. Gaitasunak trebatzen jarraitzen dugu eta, aldi berean, gustura eta dibertsio puntu batekin jarduteko modua eskaintzen zaigu. Entzumena lantzen dugun honetan musikak eskaintzen du horretarako bidea. Joeran dauden taldeen abestiak zein betiko klasikoak erabili dira. Musika datu-korrante bidez, hots, *streaming*ean eskaintzen duten plataformak aurrez aurrekoetan lana errazten digute. Haatik, *YouTube* plataformako bideoen bidez utzi ditugu eskuragarri ikastaro honetan. Ezin aipatzeke utzi abestien hitzak biltegitratzen eta antolatzen aritzen diren sareko behargin eskuzabalak eta azken urteotan lan hori eta gehiago bere gain hartu duen Badok.eus plataforma. Izan ere, han topatutako hitzekin atazak sortzea erosoagoa baita neronek transkribatu ostean egitea baino. Ariketa edo saio hauetan musika entzuten duten bitartean hutsuneetako hitzak jartzea eskatzen zaie ikasleei. Denbora-pasa gisa ere har daiteke eta batik bat hiztegia zein ulermena lantzeko tresna aparta da.

Esnea zuri. Liher. Musika eta hitzak

Gogoia alaitzeko musika bezalakorik ez dago. Har dezagun tarte bat horretan gozatzeko eta bide batez zenbait hitz eta esamolde ezagutzeko. Ea hutsune denak betetzen dituzun entzun bitartean. ***Eraman testuaren azpiko hitzak dagokion hutsunera.***

Gizakia beti izan da bere burua engainatzeko bezain azkarra nola esan begiko

neuk ere ez badut sinetsi nahi.

Zuk, zure ezkutatzen ere ez duzu lan makala.

"Ez esan gezurrik" agindu ziguten hodeien gainean zegoela esaten zigutenek.

Esnea zuri.

gizakia	beregandik	ahuldadea	dezakegu	para
arazoei	garelako	zaitudala	islada	

15. irudia. Musika eta hitzak (hutsuneak bete)

- **Adierazpen gaitasuna lantzen**

Azkenik, *adierazmena lantzeko* tarte bat atondu dut. Aurrez-aurreko saiorako gai bat ekarri ohi dugu astero ahoz eta bikoteka lantzeko. Ariketok solaskidea ondoan duzula egiteko pentsatuak dira. *Online* ere egin daitezkeela jakinik ere, ikastaroaren izaeran ezin egokiago uztartzen da era honetako egiteko bat.

Proposatutako gaiak eta lantzeko moduak ez dira beti era batekoak. Taldeka egitekoak badira, esate baterako, emozioak adierazteko hitz zerrenda batetik norbera identifikatuko luketen hiru edo lau aukeratu eta horiekin ikaskideei norbere buruz aritzea. Bikotekako elkarrizketak ere maiz erabili ditugu trebakuntzan (azterketan ere hala egin beharko baitute). Azpian jarri dudan irudian azken era honetako ataza baten planteamendua ikus daiteke.

4.5 Adierazmena lantzen. Ahoz eta idatziz



Aurkituko dut beste bat hobea (ahozkotasuna lantzeko)

Ondoko ariketan bi testuinguru ezarriko zaizkizue bikote gisa elkarrizketan aritu zaitezten. Bakoitzak testu bat irakurriko du bere papera ondo antzezteko eta arrazoiak baliatze aldera. Bi estekatan jarri ditugu nahi izatera legez joka dezazuen (alegia, bestearen arrazoiari berri izan ez dezazuen). Nolanahi ere, biak irakur ditzakezue eta alde biak jokatu. *Klikatu irudi baten gainean testua ikusteko:*



Bukatzeo datorren eskola egunerako idazlan bat egitea proposatuko dizuegu. Ahoz landu duzuen 140 hitz inguruko testu batera aldatuta. Idazlan fitxategi gisa igo behar duzue datorren astelehena baino lehenago (zuzentzeko astia izan dezagun).

16. irudia. Adierazmena lantzen (ahoz, idatziz)

Errol joko, aurkezpen, gai jakinen inguruko azalpen eta abarren ahozko ekoizpenak eskolan landu ostean, irudiko azken paragrafoan ikusten den bezalako iradokizuna egiten zaio ikasleari. Esan nahi baita, ahotan izan ditugun gai horien inguruko idazlan bat prestatzea eta garaiz *LMS*ak eskainitako bidalketa aukeraren bidez igortzea eskatzen zaio. Izan ere, dokumentu horien berrikusketarekin hasiko baita hurrengo asteko jarduna (ebaluazio, autoebaluazio eta koebaluazio egitekoen ostean). Era honetara, gaitasunen eskuratze prozesuan onuragarria izan bide den sorgin-gurpila osatuko dugu.

Gehitu bidalketa

Zure bidalketan aldaketak egin

17. irudia. Bidalketa botoia

Ondorioak

Eguneroko lanean darabildan metodologiaren inguruko hausnarketak, antzeko atazatan dihardutenen proposamenak, erabiltzen ditudan bitartekoen bestelako ikuspegiak, baliabide berriak... asko dira hilabeteotan osatutako ibilbidean lortutako emaitza aberasgarriak. Ekoizitako edo moldatutako ikas-baliabidea ez da noranahikoa ezta hasieran asmo genuen alderdi guztiak besarkatuko dituen ere, alabaina, egiten ikasitakoak eta ezagututakoak aurrerantzean eginkizun ditudan heziketa betebeharrak egokiago diseinatzen zein gauzatzen lagunduko dit. Bide batez, proposatzen dudana tresna ere B1 mailako zeinahi euskara ikasle zein irakasleri zinez baliagarria izango zaiolakoan nago.

Ikastaroak UEUren ikasgela birtualean du ostatu. Bertan aritzeko administratzaileak matrikulatu beharko luke erabiltzailea. Beraz, dokumentu hau irakurtzen duenak horretarako interesik izango duelakoan, sarbide berezi bat atondu dugu. Estekan klikatu eta azpian jasotako datuekin ez da hura atzitzeko arazorik izango:

- Ikastaroaren URLa: <https://ikasgela-birtuala.ueu.eus/course/view.php?id=368>
- Erabiltzaile-izena: euskara-ikastaroa
- Pasahitza: Euskara-ikastaroa18

Has nadin erdietsitako helburuak hona labur ekartzen. Ekiten hasi baino lehen, hots, diseinuaren inguruko hausnarketa garaian, ikastaroaren erabiltzaileei so aritzeak haien behar eta baldintzak hobeto ezagutzeko bidea eman dit. HEOetako ikasleak askotarikoak dira baina, batik bat, eskolaratzeko aukera edo borondate gutxiago dutenak direla esan genezake. Lanean dihardute edota bestelako eginkizunekin bateratu nahi lukete hizkuntzak ikaste prozesua. Sortutako tresna benetan da aproposa halako xede erabiltzailearentzat eta datorren ikasturtean erabiltzeko prest dago, are egokitzapenak zein behar adina emendio eginik ezein irakaslek bere ikastaldearekin balia dezan.

Halaber, txosten honetan erabilitako metodoaren egokitasuna arrazoitzen ahalegindu naiz. Horretarako, hainbat egile, irakasle eta ikastaro diseinatzaileen aburuak azaldu ditut sistema erdi-presentzialaren aldeko eta kontrako zioak orekatzeko eta hartutako erabakiari indarra emate aldera. Ikastetxera datozkiguneren beharrei errazago erantzuteko testuinguru ona dela ohartu naiz eta aurrez aurreko jarduerak paratu dugun *online* plataformako baliabideekin uztartzeak haien autonomia eta ikaste prozesuarekiko kontrola areagotzea ahalbidetzen duela. Batez ere, elkarrekintza eskaintza ugari direlako guztien eskura: foroak, zuzeneko mezuak, autozuzenketa lanak, koebaluazioa, ariketa beregainak edo taldeko zuzenketa zein galdera-erantzun saioak (aurrez aurreko testuinguruan). Ikasleek gure ikastaroarekin bakarka, irakaslearen babesean zein taldeka ikasteko modua dute komunikazio trebeziak beraienganatzen dituzten bitartean.

Zehaztu den beste alderdi bat (munta handikoa) landuko den hizkuntza mailarena da. Europar Erreferentzia esparruari dagokion B1 maila definitu da eta gizarte mailan, gure komunitatean horrek dituen baldintza eta arauen berri ere eman dut txostenean (1. hizkuntza eskakizuna eta hura aitortzen zaionari onartzen zaizkion trebezia mentsak). Orobat, hizkuntza eskolako ebaluazio jarduna aipatu dut; izan ere, bertaratzen diren askoren azken xedea baita lanerako ezinbestekoa duten ziurtagiriren bat eskuratzea.

Esparru zabalagoari ere egin zaio keinu bat txostenean. Nolabait esateko, ezagutza eskuratzea bazen moldiztegien iraultzari atxikitako xedea, gaur egun, ahalduntze teknologikoa aipatzen denean, ideia haien oihartzuna jasotzen baitugu. Ezagutza eskuragarri behar dugu eta aldi berean sortzeko bitartekoen jabe ere egin beharko genukeela (jakintza sortzeko eta partekatzeko gaitasuna garatuta) esaten zaigu hezkuntza komunitateko kideoi. Ildo horri jarraitzen dio aurkeztutako lan honek ere. Hizkuntzaren ezagutza hedatzeaz gain, trebezia digitalak lantzeko aukera ere eskaintzen duelako. Baliabide telematikoak edo sarekoak erabiltzen ohitutako eta maiztasun txikiagoz darabiltzatzenen arteko bateratze egitekoa geure gain hartu dugu.

Aurrez aurreko ohituretatik proposatutako ingurune berrirako jauzia egin asmoz, *Moodle* plataforma aukeratzeak zerikusi handia du hezkuntza sisteman sakon finkatuta dagoen baliabidea izatearekin. Bitartekoaren ingurukoez ere oldozketa aldi bat izan da ekoizpenaren aurretik eta txostenean horren ingurukoak jaso ditugu. Baliatzeko gertu dago, kode irekikoa da eta bertan erantsitakoak partekatzen nahiko erraza da. Izan ere, ikas material egokia diseinatzea, justifikatzea eta sortzea benetan kontu nekagarria eta zaila da. Bestalde, ez dirudi oso eraginkorra denik ariketa sorkuntzan ekimen isolatuak biderkatzea, esan nahi baita, normahik egindako ahalegina aitortuta

hark sortutakoaren gainean behar diren egokitzapenak burutzea zentzuzkoagoa dirudi; ez dezagun lan edo saiakera bera mila aldiz egin emaitza antzekoak lortzeko. Hortaz, ederra litzateke, dagoeneko osatuta dauden eta egiaztatuta egon daitezkeen lanen jarraipena egin ahal izatea. Zentzu honetan, norberak zein beste normahik prestatutako hezkuntza materiala berrerabiltzeko ezinbestekoa da formatuen bateragarritasuna. Unitate didaktiko bat edo ariketa multzo bat barnebiltzen duen bitarteko bat osatzen badugu, bilduma osoaren bateragarritasunari begiratu behar diogu. Metodologian aipatu den gisara, *SCORM* eta *QTI* erreferentzia erduei jarraiki egituratutako plataforman sortu dugun ikastaroa izanik, ikastaroko baliabideren bat inorentzat erabilgarria suerta baledi, ez luke berrerabiltzeko inolako oztoporik aurkituko; bestela egindakoak baino erosoago egingo luke, behinik behin.

Hausnarketa eta ezagutza zabaltze saioen ostean, lana gauzatze aldiari ekin nion. Hona, motzean, ikastaroan parte hartuko duenak aurkituko duena, oinarri materiala. Bost ataletan atondu dugu ikastaroa.

Lehendabizikoa *Berrikuste jarduera* sorta gisa proposatu da. Hiru ataza osatu behar dira. Ikastaroko sail bakoitzean bezala astebeteko tartean burutzekoak. Aurrez aurreko eskoletan baliatuko ditugun arren, ikasleak bere kabuz, nonahi eta noiznahi egiteko ariketak dira.

- Alde batetik, ikaskideak elkarrekin osatzen joan bide diren hiztegi bat moldatzeko aukera dago. Asteaz zehar agertuko zaizkien hitz edo termino berriak txertatuta, ikastaroa amaitzerako hiztegi erabilgarri bezain beren beregi haiei egokitua izango dute nahi eran baliatzeko.
- Bigarren ataza autoebaluazio tailerra da. Irakasleak ikasleen hainbat idazlan jaso ondoren (berak neurtuko du zenbateko egokia), elkarrekin ebaluatzeko aukera zabalduko du. Horretarako, errubrika bat eskainiko zaie ikasturtean zehar ia buruz ikasiko dutena eta eskuratu beharreko trebezien ezagutza beraienganatzen lagunduko diona. Tresna horiekin euren ebaluazioa eskainiko dute eta hori bera ebaluatzeko aukera ere egongo da. Era horretara, ikaskideen, ikasleen eta norbere irizpideak zein komunikatzeko moduak bateratzen joan bide dira elkarrekin.
- Azken ataza aurrez aurreko eskoletan osatzekoa da, eskuarki. Ebaluazio lanen ostean azaldutako akatsen edo hobetu beharrekoen zerrendatze bat da, hain zuzen ere. Berau ariketa gisa egokituko du irakasleak eta ikastalde osoak elkarrekintzan egingo du, are irakaslearen gidaritza lanarekin ere. Dokumentu hori eskuragarri izango da plataforman ikaslek hala nahi duten bakoitzean eskura dezaten.

Eduki berrien atala, bigarrena, Arian metodoa izan bide den gidalerro liburutik eskuratzen da. Aurrez aurreko eskoletan landuko ditugu bertako alderdiak. Nolanahi ere, aurrez begiratu gero, zalantzak argitzeko galderak egiteko aukera izan dezakete erabiltzaileek eskolaratzen direnean. Bertan proposatutako ariketa beraien kabuz eta *online* osatzea proposatzen zaie. Lehenago, eskolan bestelako ariketa osagarrian eginak izango dituzte eta berrikuste ariketatzat ere har genezake.

Eskolara agertzerik izaten ez duten asteetan *online* ere egin ahal izateko moduan diseinatuta dago. Azal dakizkiekeen zalantzak *Berriak eta oharrak* foroan plazara ditzakete eta ikaskideek eta ziurrenik irakasleak argibide egokiak helaraziko dizkie.

Hirugarrena izango den *Irakurmena lantzeko* atalean, bi eratako iturriak bilduko dituzte baina, finean, egitekoa bakarra da, alegia, irakurritakoa ulertzeko gaitasuna treba dezaten.

- Batetik, testu txatal bat proposatuko zaie. Izan bedi albiste bat, artikulua bat, umorezko pasarte bat, gai beraren inguruan rol edo jarrera ezberdinak ordezkatzeko jokoren bat, testu literario laburren bat... ikasleari kitzikagarri gerta dakion saiatu gara. Irakurketaren ostean galdetegi bat osatzeko modua izango dute zeina nahi adina aldiz errepika daitekeen. Zenbat eta trebatuago dauden orduan eta errepikaldi gutxiago beharko dute, jakina.
- Beste alde batetik, testua eta irudia uztartzen diren ariketa bat izango dute egingai. Bertan, umorea, bitxikeria edo alderdi dibertigarriren bat azalduko da. Hala izan nahi luke, behinik behin, horretarako irakaslearen umore senarekin bat egin beharko dute baina batik bat azaldutako testua ulertu. Azkenik, horrek eragin dizkizun emozioen edo ideien berri emango dute berriazko foroan. Ikaskideen iruzkinak irakurri beharko dituzte eta gutxienez erantzun bat eman haietariko bati (norbere iruzkinaz gain). Hemen bakoitzaren ekoizpenaz gain, idatzizko elkarrekintza ere landuko dute.

Laugarren ataza multzoan *entzundakoaren ulermena* landuko dute. Horretarako bi ataza eskainiko zaizkie. Aurrekoetan bezala nahi adina aldiz berregin daitezke eta uste izatekoa da ikastaroak aurrera egin ahala horien beharra gutxiagotzea. Norbere aurrerapenaren adierazle izan daiteke, noski.

Azterketa ofizialetan agertu ohi diren ariketez gain, hain zurrinak ez direnak ere baliatu ditugu. Nolanahi ere, xedea beti bera da, hots, audio fitxategia entzun ostean bertan esandakoak ulertu izana neurtzea. Askotariko gaiak izan bide dira eskainitakoak, orobat, elkarrizketak, galdera-erantzun saioak edo bakarrizketak entzun

ahal izango dituzte.

Bizigarria izan daitekeelakoan eta, bide batez, euskal kulturako ekoizpenen berri izateak bere komunitatean txertatzeko bidea erraztuko dielakoan, zenbait abestiren bideoak ekarri dizkiegu erabiltzaileei plataformara. Horiek entzuten dituzten bitartean, abestietako hitzak edo bertso sortak izango dituzte aurrean. Zenbait hitz falta direla ohartuko dira, bada, hutsuneok betetzea da proposatutako ataza. Belarriak gozatuta garuna lantzeko bide egokia izan nahi du.

Azken egiteko multzoa, bosgarrena, *adierazmena* (ahozkoa zein idatzizkoa) lantzeko diseinatu da. Aurrez-aurreko saiorako gai bat ekarriko dugu astero ahoz eta bikoteka lantzeko. Horixe izango da asteko lanaren abiapuntua, eskolan landutako kontu horiek etxean beraien kabuz jorratzen jarraituko dute ikasleek eta egindako aurrerapenen lagin bat bidaliko dute. Arestian esan bezala, irakasleak zuzenketa egingo ditu baina baita ikaskideek ere koebaluazio tailerraren bidez. Horrela, zikloa itxiko dugu ikas-irakas prozesua berrelikatzen den bide gisa diseinatuta.

Pozarren xehatu ditut erdietsitako asmoak. Haatik, bada behaztopen berri emateko eta egindako ahaleginen muga azalertzeko garaia ere. Ezinbestekotzat genuen ikuspuntu diskurtsiboari (ikasleari erabilgarri zaizkion egiturei) zein testuak ulertzeko estrategiei (bai mintzamen, bai idazmen moduei) garrantzia ematea. Horrela, nolabait bide horretatik ikaskuntzan ikasleak gogoeta egin dezan eta ikasi duenaz hausnarketa egiteko bidea izan dezan. Beste era batera esanda, ikaslea gai izan beharko litzateke gai baten bukaeran ikasi duena zer den esateko eta ikasten jarraitzeko estrategiez hausnartzeko. Hein batean eutsi diogu ikuspegi horri nahiz eta *online* jarritako materialean nabariegia ez azaldu. Aurrez aurreko saioetan egiten dugu ikasleek trebezia horiek eskuratzeko bidean jarraitu beharreko urratsen gidaritza. Sareko ikastaroan trebezia horien probatzeko edo neurtzeko aukera argiagoa dute. Hurrengo saiakeratan hobetu beharreko alderditzat dugu ikasle autonomoagoak lortze aldera.

Hastapeneko xedean artean genuen, halaber, egitekoa testu errealetan oinarrituta osatzea eta ikasleek benetako egoerei aurre egiteko bitartekoak eskura ditzaten, testuinguru horietan kokatzea ikastaroko erabiltzaileak (azaldutako oztupoak gaindituta gaituko eta trebatuko direla sinetsita). Testuon analisisa ikasleen ekoizpenari dagokionean baino ez da egin (modu jarraituan). Tarteko zenbait testu aztertu ditugu hizkuntza prozesatzeko tresneria erabilia baina horiek ikastaroaren muinean txertatu eta diseinuan funtsezko baliabide izateko asmoan motz geratu gara. Beraz, letozkeen ekimenen erronken artera bildu beharrekoa da.

Bibliografía

- Arruarte, A. (2016).** Hezkuntza materiala berrerabiltzen: ikaste-objektuak. Ikus <https://labur.eus/HezkuntzamaterialenBerrerabilgarritasuna>
- Ardila-Rodríguez, M. (2010).** Modelo pedagógico para b-learning. Educación y Desarrollo Social, ISSN 2011-5318, ISSN-e 2462-8564, Vol. 4, N.º. 1, 2010, págs. 38-55. Hemendik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5386188>
- Brand, M. J. (2003).** Employing sharable content object reference model (SCORM tm): Development of SCORM compliant advanced distance learning courses.
- Cabero, J. & Castaño, C. (2005).** Bases pedagógicas de la Teleformación. En Cabero, J. (Dir.): "Formación del profesorado universitario para la incorporación del aprendizaje en red en el Espacio Europeo de Educación Superior". Universidad de Sevilla y Ministerio de Educación y Ciencia. Argitalpen [elektronikoa](#).
- Camacho, A. Lonbide, P. 2016.** Zer dugu Moodle-ren kontra? Eta alde? [Hizpide: euskalduntze - alfabetatzearen aldizkaria](#), ISSN 1136-5714, ISSN-e 2530-3287, [Año 34, N.º. 89, 2016](#)
- Gabrielatos, C.** Corpora and Language Teaching: Just a fling or wedding bells? <http://tesl-ej.org/ej32/a1.html>
- Camacho, A., Lonbide, P. (2016).** *Zer dugu Moodle-ren kontra? Eta alde?* e-Hizpide, 89. zenb. Ikus [hemen](#)
- Ezeiza, J. (2018).** *Moodle-ri etekina ateratzen: ikasleak motibatzeke hainbat erabilera.* e-Hizpide, 92. zenb. Ikus [hemen](#)
- García Aretio, L (2018).** *Blended learning and the convergence of face-to-face and distance education*, in RIED. Revista Iberoamericana de Educación a Distancia, 21(1), 09-22 or.
- Guàrdia, Lourdes (2012).** El diseño tecnopedagógico del ePortfolio para contextos de enseñanza y aprendizaje en la educación superior: desde una visión evolutiva de los modelos de educación a distancia a la educación en línea. Argitaratu gabeko doktore tesia, Euskal Herriko unibertsitatea, Donostia.
- Lasheras, María José (2009).** [Ikaskuntza konbinatua](#): irakasleen prestakuntza eta lehenengo urratsak euskaltegietan. [Hizpide: euskalduntze - alfabetatzearen aldizkaria](#), ISSN 1136-5714, ISSN-e 2530-3287, [Año 27, N.º. 70, 2009](#), 63-80 or.
- Monsalve Gómez, J. C. y Amaya Vanegas, D. M. (julio-diciembre, 2014).** Implementación de ambientes de aprendizaje b-learning: retos para docentes y estudiantes. Revista Colombiana de Ciencias Sociales, 5(2), 408-417. Hemendik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5123789>
- Otegi, A. Imaz, O. Díaz de Ilarraza, A. Iruskieta, M. Uria, L. 2017.** ANALHITZA: a tool to extract linguistic information from large corpora in Humanities research. Procesamiento del Lenguaje Natural 58: 77-84.

Rosenberg, M. J. (2001). E-learning: Strategies for delivering knowledge in the digital era. New-York: Mc-Graw-Hill

Araudia:

2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa. EAO, maiatzaren 4koa. Ikus [sareko dokumentua](#).

187/2017 DEKRETUA, uztailaren 4koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen duena. Ikus [dokumentua sarean](#)

46/2009 DEKRETUA, otsailaren 24koa. Honen bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailetako-oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila-curriculumaz ezaizten da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira. Ikus [dokumentua sarean](#)

Europar Kontseilua (2002). Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Marko Bateratua. (ikus <https://labur.eus/6cejr>).

Europar Kontseilua (2017). DigComp 2.1: The Digital Competence Framework for Citizens with eight proficiency levels and examples of use. Ikus [dokumentua sarean](#)

HEOetako programazioa (Euskara B1). Ikus [sareko dokumentua](#)

Web interesgarriak:

Arian metodoaren gunea: https://labur.eus/Arian_Hezkt18

Booktegi egitasmoaren gunea: <http://booktegi.eus/index.php>

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren EHULKU gunea: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/ehulkuren-aholku-guztiak>

Euskara-irakaslearen Didakteka: <http://didakteka.santurtzieus.com/index.php/Azala>

Gimp aplikazioaren gunea: <https://www.gimp.org/>

Ikasbil; HABEk ikas materiala eskuragai jartzeko darabilen biltegi egituratua: <http://www.ikasbil.net/>

Openshot aplikazioaren gunea: <https://www.openshot.org/>

Primeran metodoaren A2rako lagina: https://labur.eus/PrimeranA2_Eskuragarri

SCORM erreferentzia ereduaren eskuliburua. Ikus: <https://labur.eus/ScormTxostenaHezIKT18>

Compleat Lexical Tutor v.8.3. For data-driven language learning on the Web. <https://www.lextutor.ca/>